- Apoyo a las Empresas y Centros Tecnológicos a través de la tramitación de la Orden de Ayudas del Ministerio de Ciencia e Innovación para empresas instaladas en los Parques Científicos y Tecnológicos a proyectos de I+D+i. En la convocatoria de "Investigación Aplicada Colaborativa" se ha logrado el apoyo a 5 proyectos empresariales a través de un volumen total de ayuda de 1,27 millones de euros y en la convocatoria de "Infraestructura y Equipamiento Científico tecnológico" se han presentado 24 proyectos, que suponen de un volumen de inversión de 84,52 millones de euros.
- Continuación de las actuaciones al amparo de la relación de colaboración especial con la UPV/EHU, cuyo objeto es la futura puesta en marcha del Parque Científico en el Campus de Leioa. En este contexto, una vez culminado la redacción del Master Plan, se han dado los primeros pasos en materia de urbanismo y se han puesto las bases para que Parque Tecnológico, S.A. se responsabilice del posterior desarrollo del Parque Científico. Como no puede ser de otra manera, se ha intensificado de manera notable la colaboración con la Universidad, camino en el que se pretende seguir trabajando en los próximos años.
- Continuación con la relación de colaboración especial con el Ayuntamiento de Bilbao, cuyo objeto es la futura puesta en marcha del Parque Tecnológico de Zorroztzaurre. Destacar la inclusión de Parque Tecnológico, S.A. en World Trade Centers Association, hecho que posibilitará la implantación de un edificio destinado a albergar un World Trade Center en este nuevo Parque.
- El Parque ha resultado elegido como el mejor emplazamiento para, en caso de que prospere la candidatura española, albergar la Fuente de Espalación de Neutrones.
- Se ha logrado un incremento apreciable en el número de Empresas, lo que ha conllevado poder mantener un volumen y tasas de ocupación de locales en alquiler muy altas. Consecuencia directa de ello es también el logro del objetivo en materia de ventas de inmovilizado, lo que conjuntamente con la racionalidad en la ejecución de las inversiones y con un riguroso control del gasto, permiten mantenerse en la senda de resultados y cash flow positivos, liberando importantes recursos que, a corto plazo, podrán destinarse a otros proyectos de inversión interesantes para la Sociedad. En concreto, es destacable lo siguiente:
 - Un grado de ocupación de locales en alquiler superior al 95%, lo que, además de permitir obtener unos ingresos netos por arrendamientos cifrados en 6,54 millones de Euros, refuerza más que nunca la política de continuar construyendo edificios para Empresas.

- 10,40 milioi euroko desinbertsioak (partzelak eta bulegoak saltzearen ondorioz) indartu egiten du lehenbailehen lursail urbanizatuak edukitzeko beharra.
- 26 enpresa berri ezarri dira, beraz, 2008ko abenduaren 31n 214 enpresa zeuden guztira (64 eraikin propioan). Enpresa horien fakturazio osoa 2.000 milioi eurokoa da, eta 7.000 langile dauzkate, horien artean %50 baino gehiago goi-mailako tituluduna da %22k I+G lanetan dihardu.
- Gastuaren euspena aurreikusitako mailan mantendu da edo jaitsi egin da, eta hori Sozietatearen jarduera handitu egin dela.
- Inbertsioen ikuspuntutik, aurreikuspenak guztiz bete ez diren arren, zenbait alderditan lan egin da. Alde batetik, Parkearen egungo kokapenaren III. fasea deritzona garatzeko beharrezko lursailak eskuratzeko tramiteak hasi eta konpromisoak lortu direnez, zona berriaren urbanizazioa hasi da. Horrek aukera eman du sektore honetan eraikin berri bat egiten hasteko (407 eraikina). Aldi berean, hedapen-gune berriaren (Geldos sektorea), III. fasearen bigarren egikaritz-unitatea, hirigintza-plangintzako lanak aurrera doaz Derioko udalerrian. Bestalde, eraikin bi egiten amaitu dira (500 eta 602), lehenengoa enpresen alokairura bideratutakoa, eta bigarrena, berriz, teknologia berrien interpretazio-zentro batera; era berean, beste bat egiten jarraitu da (502), enpresen alokairurako eta merkataritza-zona bat bertan hartzeko. Lokal eta instalazio espezializatuak ere egokitu dira, batez ere, 100, 102, 105, 203, 500, 602 eta 702 eraikinetan. Gainera jabetza pribatuko eraikin bat erosteko akordio bat adostu da.
- Beste alde batetik, formalizatu den kapital-zabalkuntzaren ondorioz, gauzazko ekarpenak jaso dira, Abanto poloko lursailen zati handi bati dagozkienak. Hortaz, ekitaldian zehar formalizatu diren zuzeneko erosketekin batera, sektore berriko plangintzako, kudeaketako eta Hirigintza-egikaritzako tresna guztien idazketa-lanei hasiera eman ahal izan zaie. Era berean, Margen Industrial y Logística, S.A. sozietatearekin (Inmarlo, S.A.) bat egin du hura xurgatzearen ondorioz.
- Inbertsioak gauzatzera izandako atzerapenaren ondorioz, aurreikusitako zorpetzea gutxitzea komeni izan da, baina Parkea handitzeko aurreikuspenak kontuan hartzen badira, besteren baliabide gehiagotara jo beharko dela pentsa daiteke; horregatik, uste da etorkizunean besteren baliabideak handiak izan daitezkeela.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren irudi berri bat sustatu eta zabaldu da. Zehazki, EAEko Parkeen eredia esperientzia imitagarri gisa esportatzeaz gain, azpimarratu behar dira zenbait herrialdetako erakunde-, enpresa- eta akademia-ordezkaritzen aldetik jasotako 60 bisitak; ordezkaritza horiek interesatuta daude gure Teknologia Parkeen eredia zuzenean ezagutzeko interesa azaldu baitute. Horrez gain, Parkearen ezaugarriak hedatzen aktiboki hartu da parte, nazio eta nazioarteko foro eta kongresuetan aurkeztutako hitzaldien bidez.
- Alde horretatik, nazioarteko zenbait Parkerekin harremana sendotzen jarraitu da, lankidetzazko hitzarmen berriak lortze aldera.
- Desinversiones (por venta de parcelas de terreno y oficinas) por valor de 10,40 millones de Euros, lo cual no hace sino ratificar la necesidad de disponer con urgencia de más terrenos urbanizados.
- La Instalación de 26 nuevas Empresas, de modo que al 31 de diciembre de 2.008 el número total asciende a 214 Empresas (64 en edificio propio). La facturación total de estas Empresas alcanza los 2.000 millones de Euros, situándose su plantilla en 7.000 personas, de las que más del 50% son titulados superiores y el 22% se dedica a actividades de I+D.
- La contención de los gastos, que se han mantenido en los niveles previstos o por debajo, y ello a pesar del crecimiento de la actividad de la Sociedad.
- Desde el punto de vista de las inversiones, a pesar de no cumplirse totalmente las previsiones, se ha actuado en diversos frentes. Por una parte, una vez iniciados los trámites y alcanzados los compromisos para la adquisición de unos terrenos necesarios para el desarrollo de la denominada Fase III del actual emplazamiento del Parque, ha comenzado la urbanización de la nueva zona. Ello ha posibilitado también el inicio de la construcción de un nuevo edificio en este sector (Edif. 407). A su vez, avanzan los trabajos de planeamiento urbanístico de la nueva zona de expansión (sector Geldos), la segunda unidad de ejecución de la Fase III, en el municipio de Derio. Por otro lado, se ha finalizado la construcción de dos edificios (500 y 602), el primero destinado al alquiler de empresas y el segundo destinado a un centro de interpretación de las nuevas tecnologías, y se ha continuado con la construcción de otro edificio (502), destinado al alquiler de empresas y a acoger una zona comercial. Se ha actuado también en el acondicionamiento de locales e instalaciones especializadas, fundamentalmente en los edificios 100, 102, 105, 203, 500, 602 y 702. Además se ha alcanzado un acuerdo para la compra de un edificio de titularidad privada.
- Por otro lado, como consecuencia de la ampliación de capital que se ha formalizado, se han recibido aportaciones en especie consistentes en una parte importante de terrenos del polo de Abanto, lo cual, conjuntamente con las compras directas que durante el ejercicio se han ido formalizando, ha permitido iniciar los trabajos de redacción de la totalidad de los Instrumentos de Planeamiento, Gestión y Ejecución Urbanística del nuevo sector. A su vez, se ha materializado la fusión por absorción de la Sociedad Margen Industrial y Logística, S.A. (Inmarlo, S.A.).
- Si bien el retraso en la ejecución de inversiones ha aconsejado no tomar todo el endeudamiento previsto, las previsiones de ampliación del Parque obligarán a recurrir a más recursos ajenos, por lo que se estima que en el futuro éste pudiera ser considerable.
- Promover y difundir una nueva imagen de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En concreto, además de la exportación del modelo de Parques Vascos como experiencia a imitar en el exterior, destacar las 60 visitas recibidas de delegaciones institucionales, empresariales y académicas de distintos países, interesadas en conocer de primera mano el modelo de nuestro Parque Tecnológico. Así mismo, se ha participado activamente en la difusión de las características del Parque mediante la presentación de ponencias en diversos foros y congresos nacionales e internacionales, así como en diversos proyectos de asesoramiento.
- En este mismo sentido, se ha seguido estrechando lazos con diversos Parques a nivel internacional, en aras a conseguir nuevos convenios de colaboración.

- Lankidetzeta-politika horren eta nazioarteko lanaren ondorioz, sakondu egin dira, Parke Zientifiko eta Teknologikoen Nazioarteko Elkartearen (IASP) bidez, Batasuneko Erakundeekiko eta berrikuntzarako Mundu Aliantzarrekiko harremanak.
- Era berean, Estatuko beste Teknologia Parke batzuekin lankidetzan jarraitu da APTE elkartearen bidez; elkarre horretako presidenteordezta kargua betetzen da. Gainera, APTE eta Industria Ministerioaren arteko hitzarmen baten bidez, Parke sortu berriei aholkua emateko proiektu batean parte hartzen ari da.
- Euskadiko Parke Teknologikoen Sarea finkatu da eta horrek barne hartuko ditu, ez bakarrik egungo Parkeak, baita etorkizunean sor daitezkeenak ere.
- Aktiboak ahalik eta gehien ustiatzeko, eta Teknologia Parkea enpresak elkartzeko gune ez ezik, ezagutza eskualdatzeko eta teknologia zein berrikuntzaren kultura hedatzeko gune ere bilaka dadin, aipatu beharra dago zerbitzu orokorretan izan den erabilera-maila handia. Aipamen berezia merezi dute egin diren mintegiak, konbentzioak, batzarrak... (1.250 bilera inguru, 34.250 bertaratutakoak), eta garrantzi handiko ekitaldietan parte hartzea, batzuk oso garrantzitsuak gizartearen.
- Barne-kudeaketa hobetzen jarraitu da, eta ekintza hauek egin dira, besteak beste: baliabideen kudeaketa eraginkorra egin da, informazio-sistemak etengabe eguneratu dira, gastua kontrolatu da, barne-prozedura guztiak aztertu dira, kanpo-zerbitzuak kontratatuzko eta kontrolatzeko mekanismoak etengabe moldatu dira, hobekuntza-taldeekin esperientziak izan dira, barne- eta kanpo-komunikazioak izan dira... Hitz batez, emandako zerbitzuak eraginkorragoak eta hobeak izan dira. Ondokoak azpimarra daitezke bereziki:
 - EFQM kudeaketaren bikaintasunezko eredua ezartzen jarraitzea.
 - Iraunkortasunaren eta erantzukizun sozialaren esparruan, aurretiaz ere garatzen ari ziren beste ekintza askoz gain, bereziki aipagarriak dira Parkeko Enpresen eta beste agente batzuen (Udalak...) artean sortutako iraunkortasun-talde berriak, garraio publikoaren azpiegiturretan lortutako hobekuntzak –lineak eta zerbitzuak gehitu dira–, eta aisiaren alorrean ekimen garrantzitsu batekin jarraitu izana (“Parkea aisia-gune gisa”).
 - Parkeko ingurunean prestakuntza eta enplegu beharrak ikertzeko proiektu batean lankidetzan aritzea.
 - Kanpoko eta barneko komunikazio-kanpainak hobetzea eta areagotzea; horretarako, aurretiaz garatutako tresna eta euskarriak aprobetxatu dira (hiruhilabetekaria –Euskotek-, hileroko buletina –Parkea-, Parkearen kanpoko pantailak, prentsa-oharrak, etab.) eta, ondorioz, gizartearekiko arduratsua den Enpresaren papera ere indartzea.
 - ERP berria ezartzeko behar diren jarduerak hastea eta tresna informatiko berriak ezartzea kudeaketaren hobekuntzaren euskarri gisa (aurrekontuak egitea,...).
 - Kontratazio-prozedurak egokitzea.
 - Hurrengo urteetarako Sozietateren langileentzako prestakuntza-plan berria diseinatzen hastea.
- Como fruto de esta política de colaboraciones y de trabajo a nivel internacional se ha profundizado, a través de la Asociación Internacional de Parques Tecnológicos (IASP), en las relaciones con las Instituciones Comunitarias y con la denominada Alianza Mundial para la innovación.
- Igualmente, se ha continuado con la colaboración con otros Parques Tecnológicos del Estado a través de la Asociación APTE, ostentando la Vicepresidencia de dicha Asociación. Además, a través de un Convenio APTE/Ministerio de Industria, se está participando en un nuevo proyecto de asesoramiento a los Parques de nueva creación.
- Consolidación de la Asociación Red de Parques Tecnológicos de Euskadi la cual dará cabida, no solo a los Parques actuales, sino también a los que en el futuro se puedan crear.
- En aras a conseguir el máximo aprovechamiento de los activos y que el Parque Tecnológico se convierta, no solo en lugar de encuentro de Empresas, sino en uno de los principales focos de transferencia de conocimiento y de difusión de tecnología y de la cultura de la innovación, es destacable el importante grado de utilización de sus servicios comunes. Así, merece especial mención la celebración de numerosos seminarios, convenciones, asambleas... (aproximadamente 1.250 reuniones, con unos 34.250 asistentes) y la participación en eventos de enorme trascendencia, incluso social.
- Se ha continuado con el proceso de mejora de la gestión interna basada, entre otros, en lo siguiente: la gestión eficiente de los recursos, la permanente actualización de los sistemas de información, el control del gasto, la revisión de todos los procedimientos internos, permanente adecuación de los mecanismos de contratación y control de los servicios externos, la experiencia con grupos de mejora, la comunicación externa e interna, ... con la consiguiente mejora de la eficiencia y de la calidad de los servicios prestados. Destacar especialmente los siguientes hechos:
 - Continuación de la implantación del modelo de excelencia en la gestión E.F.Q.M.
 - En el ámbito de la sostenibilidad y de la responsabilidad social, además de otras múltiples acciones que ya se venían desarrollando con anterioridad, merecen especial mención la creación de los nuevos grupos de sostenibilidad entre Empresas del Parque y otros agentes (Ayuntamientos...), las mejoras logradas en la infraestructura de transporte público, con ampliaciones de líneas y servicios, así como la continuación de una importante iniciativa en materia de ocio (“el Parque como espacio de ocio”).
 - Colaboración con un proyecto de estudio de necesidades de formación y empleo en el entorno del Parque.
 - Mejora e intensificación de las campañas de comunicación externa e interna, aprovechando las herramientas y los soportes desarrollados (revista trimestral –Euskotek-, boletín mensual –Parkea-, pantallas exteriores del Parque, notas de prensa, etc.), lo cual refuerza también el papel de Empresa socialmente responsable.
 - Inicio de las acciones pertinentes para la implantación de la nueva ERP e implantación de otras nuevas herramientas informáticas como soporte a la mejora de la gestión (presupuestación...).
 - Adaptación de los procedimientos de contratación.
 - Inicio del diseño del nuevo Plan de Formación del personal de la Sociedad para los próximos años.

- Diseño de una nueva Web del Parque.
- Esandako guztia euskal ekonomia etengabe hobetzeko helburuarekin bat dator, eta honako ondorio hauek ditu: baliabideak eta balio erantsia sortzea, enpresa-sarea dibertsifikatzen laguntzea, enplegua sortzea, enpresa traktoreak ezartzea eta berrikuntzari eta garapen teknologikoari laguntza ematea.

4) 2009 URTERAKO HELBURU OROKORRAK ETA HELBURUON KUANTIFIKAZIOA

4.1. - 2009rako Helburu Orokorrak

Euskal erakundeak apustu handia egiten ari dira elkarganatzeko teknologikoa lortzeko eta Europako berrikuntza-erreferente bihurtzeko; bestalde, Teknologia Parkeen ezaugarrien artean, oinarritzko bi hauek daude: alde batetik, Zientzia-Teknologia-Enpresa sistema egituratzeko gaitasuna dute eta, bestetik, I+G+B hazkundearen bizkortzaileak dira. Hori dela eta, Enpresa Lehiakortasun eta Gizarte Berrikuntzarako 2006-2009 Planean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren 2010 Planean, Teknologi Parkeek garrantzi handia dute berrikuntzaren euskarri gisa. Erronka hauek behartzen dute, dudarik gabe, ahaleginekin eta baliabideekin jarraitzea, Teknologia Parkearen jarduerak aipatu esparru horietarako norabidean jarraitu dezan.

Are gehiago, 2007an Sozietatearen estrategiaren azken azterketa egin zenean, aldaketa kualitatibo handia gertatu zen: txosten honen 2. atalean azaldu den bezala, Zamudioko eta Derioko udalerrietan Parkearen garapenarekin eta kudeaketarekin jarraitzeaz gain, epe laburrean eta ertainean ekin beharko dio kokaleku berria egokitzeari eta abiarazteari – hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko lehentasunezko jarduketaren eremu batean (Ezkerraldea)– eta, horrez gain, Leioako Campuseko Zientzia Parkea kudeatu eta garatu eta ondoren Bilbon Zorrozaurreko Teknologia Parkea garatu beharko ditu.

Laburbilduz, Sozietatea aro berri batean sartu da eta erronka berriak ditu, estrategikoak gehienak, urte bakar batean lortu ezin direnak. Gutxienez, 2007-2015 denboraldian ekin beharko zaiela uste da.

Jarraian, 2009 urterako eta hurrengo urteetarako helburu eta jardueraren ardatz nagusiak azaltzen dira; Sozietatearen Plan Estrategikotik daude aterata, eta haietan oinarrituta egingo dira beharrezko politikak eta ekintza-planak.

1. jardueraren-lerroa: Azpiegituren garapena

Ekintzak:

- 1.1 Lurrak erostea.
- 1.2 Eraikinak egitea.
- 1.3 Urbanizazioa hobetzea.
- 1.4 Plataforma teknologikoak garatzea.
- 1.5 Egoitza/Campus berriak abiaraztea.

- Diseño de una nueva Web del Parque.

- A su vez, cuanto se ha citado está en consonancia con el objetivo de contribución a la mejora permanente de la Economía Vasca, lo que se traduce en la generación de recursos y de valor añadido, en la contribución a la diversificación del tejido empresarial, en la generación de empleo, en la implantación de Empresas tractoras y en el apoyo a la innovación y al desarrollo tecnológico.

4) OBJETIVOS GENERALES PARA 2009 Y SU CUANTIFICACIÓN

4.1.- Objetivos Generales para 2009

La apuesta decidida de las Instituciones Vascas por lograr la convergencia tecnológica y por convertirse en el referente en Innovación en Europa, ligada a dos cualidades básicas de los Parques Tecnológicos, cuales son su capacidad para vertebrar el sistema Ciencia-Tecnología-Empresa y el hecho de ser aceleradores del crecimiento de la I+D+i, se traduce en el importante papel de soporte a la innovación que se les reserva en el Plan de Competitividad Empresarial e Innovación Social 2006-2009 y en el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010. Estos retos obligan, sin duda, a continuar con los esfuerzos y recursos, que permitan seguir orientando la actividad del Parque Tecnológico hacia estos ámbitos.

Pero, lejos de conformarse con lo citado, la última revisión de la estrategia de la Sociedad en 2007, ha provocado un salto cualitativo de enorme calado, de manera que, tal y como ha quedado expuesto en el apartado 2. de esta memoria, además de continuar con el desarrollo y la gestión del Parque en los Municipios de Zamudio y Derio, se habrá de enfrentar en el corto y medio plazo al lanzamiento y acondicionamiento de un nuevo espacio físico en una de las denominadas zonas desfavorecidas de actuación urgente de la Comunidad Autónoma de Euskadi (la Margen Izquierda), a la gestión y desarrollo del Parque Científico del Campus de Leioa y a participar en la creación y posterior desarrollo del Parque Tecnológico de Zorrozaurre en Bilbao.

En definitiva, la Sociedad se adentra en una nueva era, debiendo enfrentarse a importantes retos, la mayoría de carácter estratégico, y, por tanto, el horizonte temporal de los mismos no puede limitarse a un sólo ejercicio. Se considera que, como mínimo, van a condicionar las actuaciones del periodo 2007-2015.

A continuación, extractando del último Plan Estratégico de la Sociedad, se describen los principales objetivos o ejes de actuación para el año 2.009 y siguientes, de los que, por tanto, se derivarán las oportunas políticas o planes de acción.

Línea de actuación 1: Desarrollo de infraestructuras

Acciones:

- 1.1 Compra de terreno.
- 1.2 Construcción de edificios.
- 1.3 Mejoras de urbanización.
- 1.4 Desarrollo de plataformas tecnológicas.
- 1.5 Lanzamiento de nuevas sedes/Campus.

2. jarduera-lerroa: Berrikuntza sustatzea.

Ekintzak:

- 2.1. Berrikuntzaren kultura bultzatzea.
- 2.2. Agente zientifiko-teknologikoen eta enpresen arteko lankidetzak.
- 2.3. Unibertsitatearekin lankidetzak sustatzea.
- 2.4. NEBTen (Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak) sorrera eta garapena bultzatzea eta sektore berrien garapena erraztea.
- 2.5. Enpresen eta Zentro Teknologikoen eta Ikerketa Zentroen I+G+Brako teknologikoki aurreratuta dauden zerbitzuen eskaintza erakargarria bultzatzea eta garatzea.
- 2.6. Komunitate iraunkor eta parte-hartzailea bultzatzea.

3. jarduera-lerroa: Zerbitzu komunen prestazioak.

Ekintzak:

- 3.1 Enpresei eskainitako zerbitzuak hobetzea.
- 3.2 Enpresa-emanaldiak egitea.

4. jarduera-lerroa: Sustapen proaktiboko politika.

Ekintzak:

- 4.1. Bizkaiko Teknologia Parkean kokatutako enpresei zuzendutako sustapen-ekintzak.
- 4.2. Sektore berriei zuzendutako sustapen-ekintzak.
- 4.3. Erakundeekiko hitzarmenak.
- 4.4. Enpresa berriak erakartzea.
- 4.5. Komunikazio-ekintzak.
- 4.6. Bizkaiko Teknologia Parkearen eta Euskadiren irudia berrikuntzarako gune erakargarri gisa sustatzeko ekintzak.

5. jarduera-lerroa: Barne-kudeaketa.

Ekintzak:

- 5.1. Giza baliabideen kudeaketa.
- 5.2. Finantza-baliabideen kudeaketa.
- 5.3. Sistemak.
- 5.4. Informazio-sistemak.

Azkenik, ez dira beste helburu tradizional batzuk ahaztu behar, esaterako:

- Teknologia Parkeak enpresen kalitatezko kokaleku gisa duen irudia mantentzea, eta kanpoan Euskal Autonomia Erkidegoaren irudia sustatzea.
- Euskal ekonomiaren etengabeko hobekuntzan laguntzea; aipatu hobekuntza honela laburbil daiteke:

Línea de actuación 2: Impulso a la Innovación.

Acciones:

- 2.1 Promoción de la cultura de la innovación.
- 2.2 Colaboración entre los agentes científico-tecnológicos y Empresas.
- 2.3 Colaboración con la Universidad.
- 2.4 Impulso a la creación y al desarrollo de NEBTs (nuevas Empresas de base tecnológica) y propiciar el desarrollo de nuevos sectores.
- 2.5 Impulso y desarrollo de una oferta de servicios tecnológicamente avanzados atractiva para la I+D+i de Empresas y Centros Tecnológicos y de Investigación.
- 2.6 Impulso a una comunidad sostenible y participativa.

Línea de actuación 3: Prestación de servicios comunes.

Acciones:

- 3.1 Mejora de los servicios a Empresas.
- 3.2 Celebración de eventos empresariales.

Línea de actuación 4: Política de promoción proactiva.

Acciones:

- 4.1 Acciones promocionales hacia las Empresas ubicadas en el Parque Tecnológico de Bizkaia.
- 4.2 Acciones promocionales hacia sectores emergentes.
- 4.3 Acuerdos institucionales.
- 4.4 Atracción de nuevas Empresas.
- 4.5 Acciones de comunicación.
- 4.6 Acciones de promoción de la imagen del Parque Tecnológico de Bizkaia y de Euskadi como espacio atractivo para la Innovación.

Línea de actuación 5: Gestión interna.

Acciones:

- 5.1 Gestión de recursos humanos.
- 5.2 Gestión de recursos financieros.
- 5.3 Sistemas.
- 5.4 Sistemas de información.

Por último, no se deben obviar otros objetivos tradicionales tales como:

- Mantener la imagen del Parque Tecnológico como asentamiento empresarial de calidad y promover, en el exterior, la imagen de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Seguir contribuyendo a la mejora permanente de la Economía Vasca, lo cual puede sintetizarse de la siguiente forma:

- Euskal Autonomia Erkidegoarentzako eta Euskal Sektore Publikoarentzako baliabideak eta balio erantsia sortzea.
- Enpresa-sarea dibertsifikatzen laguntzea.
- Enpresa traktoreak Euskadiko Ekonomiara erakartzea.
- Lana sortzea.
- Berrikuntzari eta garapen teknologikoari babesa ematea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-irudia hobetzea, bertan eta kanpoan demostrazio-efektua izan dezan.
- Generación de recursos y de valor añadido para la Comunidad Autónoma de Euskadi y para el Sector Público Vasco.
- Contribución a la diversificación del tejido empresarial.
- Atracción de Empresas tractoras para la Economía de Euskadi.
- Generación de empleo.
- Apoyo a la innovación y al desarrollo tecnológico.
- Mejora de la imagen empresarial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con efecto demostración dentro y fuera de ella.

4.2.- 2009rako Helburuak: Abian Jartzeko Ekintza-Planak

2009an egin beharreko politika nagusiak honako hauek dira:

1.- Inbertsio-politika: Azpiegituren garapena eta egoitza edo campus berriak sortzea

Inbertsio-politika bost ekintza zehatzetan banatuta dago:

1.1. ekintza: Lursail-erosketa

Bizkaiko Teknologia Parkeak egiten duen enpresa- eta industria-lurraren eskaintza sendotzeko asmoz eta estrategikoki beste enpresa batzuen ezarpenari aurrea hartzeko xedeaz, Sozietatearen Plan Estrategikoak bitan zatitzen ditu egin beharreko ekintzak:

- Lursailen erosketa: Lursailak erosi dira Zamudioko, Abantoko, Ortuellako eta Leioako udalerrietan. Zamudiori dagokionez, lursailak erosi dira Aresti izeneko sektorean eta oso txikiak diren arren, ez dira Parkearen jabetzakoak eta III. fasea gauzatzeko behar izango dira. Bestalde, Ezkerraldean Abanto eta Ortuella udalerrietan jardungo da (lursailak erositik). Leioari dagokionez, campus berria osatzen duten lursailetan jardungo da; Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) egindako lursail-ekarpenaren bidez (UPV/EHU). Azkenik, Derioko udalerrian jarduera txikia zehaztu da.

- Tartean dauden Udalei erabilpen garbiak ordaintzea: ekintza hau 2010. ekitaldian eta hurrengoetan burutuko da.

1.2. ekintza: Urbanizazioa

Urbanizazio-ekintzak hauexek dira: lursailak eta partzelak egokitzea, ondoren eraikinak eta bideak egiteko aukera egon dadin.

4.2.- Cuantificación de los Objetivos para 2009: Planes de Acción a emprender

Las principales políticas a acometer en el año 2009 son las siguientes:

1.- Política de Inversiones: Desarrollo de Infraestructuras y lanzamiento de nuevas sedes o Campus

La política de Inversiones se divide en cinco acciones concretas:

Acción 1.1: Compra de terreno

Con el objetivo de consolidar la oferta de suelo empresarial e industrial del Parque Tecnológico de Bizkaia y de anticiparse estratégicamente a futuras implantaciones de Empresas, el nuevo Plan Estratégico de la Sociedad subdivide en dos las acciones concretas a acometer:

- La compra de terrenos: Se ha definido la compra de terrenos en los términos municipales de Zamudio, Abanto, Ortuella y en Leioa. Por lo que respecta a Zamudio, se actuará en la compra de algunos de los terrenos integrantes del denominado sector Aresti, que, aunque claramente minoritarios, no son propiedad del Parque y se necesitarán para culminar la fase III. En cuanto a la Margen Izquierda se actuará en los términos Municipales de Abanto y de Ortuella (mediante compra). Y en cuanto a Leioa se actuará en los terrenos integrantes del nuevo campus mediante la aportación de los mismos por parte de la Universidad del País Vasco (UPV/EHU). Por último se ha definido una pequeña actuación en el término municipal de Derio.

- Pagar los aprovechamientos netos a los Ayuntamientos implicados: Esta acción se completará en el ejercicio 2010 y siguientes.

Acción 1.2: Urbanización

Las acciones de urbanización comprenden acondicionar los terrenos y parcelas para hacer posible la construcción de edificios y viales.

Aresti sektorean (Zamudio) jardungo da, eremu berriaren aurreneko egikaritze-unitatearen urbanizazioa amaitzeko; Geldos sektorearen (Derio) eta Leioako Campus berriaren urbanizazioari hasiera emango zaie; Ezkerraldeari dagokionez, hirigintza arloko lanekin jarraituko da (Plan Partziala prestatzea eta aurkeztea, Urbanizazio- eta Kontentsazio-proiektua, etab), lursail horiek 2012rako prest egon daitezzen.

2009ari dagokionez, Parkeak 76.000 m2 urbanizatuko ditu.

1.3. ekintza: Eraikinak egitea

Ekintzak honela gauzatuko dira:

- 502 eraikina bukatzea, enpresei alokairuan eskainiko zaie eta zerbitzuak (merkataritza-gunea) barne hartuko ditu, eta 407 eraikina egiten jarraitzea, enpresei alokairuan eskainiko zaie.
- 602 eraikinaren barrualdea egokitzea; teknologia berrien interpretazio zentroa bertan egongo da eta sormena sustatzea izango du helburu.
- Eraikin berria egiten hastea Zamudioko udalerrian, bioteknologiaren sektoreko enpresen alokairurako.
- Leioako Campusean eraikin berria egiten hastea.
- Merkataritza-gunea egokitzeko inbertsioak egitea.
- Urtero bezala, inbertsioak egingo dira instalazioetan eta komunikazio-sistema aurreratuetan. Honen arrazoia Teknologia Parkeen oinarritzko elementu bereizlea eta adierazlea enpresei eskaintzea da. Era berean, beharrezkoa izango da eduki berriak ematea eta balio erantsia duten zerbitzu berriak eskaintzea azpiegitura honen bidez.
- Ohikoagoak eta txikiagoak diren inbertsioak (altzariak) nahiz barruko kudeaketa hobetzeko eta Sozietatearen eraginkortasuna areagotzeko beharrezkoak direnak (ekipamendu informatikoak).

1.4. ekintza: Plataforma teknologikoak garatzea

Honako ekintza hauek egingo dira:

- Inbertsio espezializatuak (BTEK, Biokabi, ahal den heinean, handitzea, UPV/EHUko laborategiak, inkubaziorako eraikina epe ertainera...).

1.5. ekintza: Egoitza/Campus berriak abiaraztea

Hauexek dira garatu beharreko ekintzak:

- UPV/EHUrekin lankidetzaren berezia garatzeko harremanaren babespean esku-hartzeak jarraitzea etorkizunean Leioako Campusean Zientzia Parkea abian jartzeko. Horretarako lursailak prest izan beharko dira eta lehenengo inbertsioak egin beharko dira urbanizazioei eta enpresentzako eraikin berriari dagokionez.

Se actuará en el denominado sector Aresti (Zamudio) finalizando la urbanización de la primera unidad de ejecución de la nueva zona, se iniciará la urbanización en el denominado sector Geldos (Derio) y en el nuevo Campus de Leioa y con respecto a la Margen Izquierda se avanzará en las actuaciones que se requieren en materia urbanística (preparación y presentación del Plan Parcial, Proyecto de Urbanización y Compensación, etc.), para que dichos terrenos puedan estar disponibles a partir del año 2012.

En lo que a 2009 se refiere, el Parque urbanizará una superficie equivalente a 76.000 m2.

Acción 1.3: Construcción de edificios

Las acciones se concretan en lo siguiente:

- Finalizar la construcción del edificio 502 destinado a Empresas en régimen de arrendamiento y a servicios (zona comercial) y continuar con la construcción del edificio 407 destinado a Empresas en régimen de arrendamiento.
- Acondicionar interiormente el edificio 602, destinado a Centro de Interpretación de las nuevas tecnologías y al fomento de la creatividad.
- Inicio de un nuevo edificio destinado al alquiler de Empresas del sector Biotecnológico en el término municipal de Zamudio.
- Iniciar un nuevo edificio en el Campus de Leioa.
- Inversiones para el acondicionamiento de la zona comercial.
- Como cada ejercicio, inversiones en instalaciones y sistemas avanzados de comunicaciones, hecho que se enmarca en la necesidad de ofrecer a las Empresas un elemento diferenciador básico y característico de los Parques Tecnológicos. Asimismo, será necesario dotar de contenidos y proveer nuevos servicios de valor añadido a través de esta infraestructura.
- Inversiones de carácter más rutinario y de escaso volumen (mobiliario) o aquellas que resultan necesarias para lograr mejorar la gestión interna y aumentar la eficiencia de la sociedad (equipos informáticos).

Acción 1.4: Desarrollo de plataformas tecnológicas

Las acciones a acometer se concretan en lo siguiente:

- La ejecución de inversiones especializadas (BTEK, ampliación, en lo posible, de Biokabi, Laboratorios de UPV/EHU, Edificio de incubación a medio plazo...).

Acción 1.5: Lanzamiento de nuevas sedes/Campus

La descripción completa de las acciones a desarrollar se concreta en lo siguiente:

- Continuación de las actuaciones al amparo de la relación de colaboración especial con la UPV/EHU, cuyo objeto es la futura puesta en marcha del Parque Científico en el Campus de Leioa. Esta nueva actuación exigirá tener disponibles los terrenos y el inicio de las primeras inversiones en urbanizaciones y en un nuevo edificio para Empresas.

• Ezkerraldean lursail berriak erosi eta hirigintza arloko lanekin jarraituko da.

• Bilboko Udalarekin hitzarmena gauzatzea eta Zorrotzaurreko Teknologia Parkea martxan jartzeko proiektua zehaztea.

Orotara, 2009. urterako aurreikusitako inbertsioak 46 milioi eurokoak dira.

2.- Berrikuntza Sailaren politika

Berrikuntza Sailaren politika sei ekintzatan banatuta dago. Honako hauek dira:

2.1. ekintza: Berrikuntzaren kultura sustatzea eta hedatzea

Bizkaiko Teknologia Parkeko enpresen eta agente teknologikoen jarduerak ezagutzera emateko, eta enpresei zein gizarteari zientzia eta berrikuntza gerturatzeko, ondoko ekintzak zehaztu dira:

• Balio erantsi handia duen zerbitzua eskaintzea, Euskadiko berrikuntza-sistemaren agente teknologikoen harremanari dagokionez, parte hartzen dituen edota berak dituen teknologia-plataformen gaien inguruan.

• Zientzia eta teknologia hedatzea BTEK teknologia berrien interpretazio zentro berriaren bidez.

• Ekitaldiak antolatzea, hala nola, teknologiaren hedapenerako eta transferentziarako jardunaldiak, gosari teknologikoak eta ateak zabaltzeko egunak.

• Berrikuntzaren berri ematea era guztietako komunikazio-ekintzen bidez, berrikuntzarekin zerikusia duten beste agente batzuei buruzko albisteak emanez, esaterako.

2.2. ekintza: Agente zientifiko-teknologikoen eta enpresen arteko lankidetzak

Sozietatearen Plan Estrategikoak zortzi ekintza burutuko ditu. Helburua zientzia eta agente zientifiko-teknologikoen arteko lankidetzak bultzatzea eta sustatzea da eta, era berean, sare nazionaletan zein nazioartekoetan partaidetza indartzea, enpresen nazioartekotzea errazte aldera. Hona hemen aipatutako zortzi ekintzak:

• Ekitaldiak antolatzea, hala nola, teknologiaren hedapenerako eta transferentziarako jardunaldiak, gosari teknologikoak, enpresen arteko topaketak, mintegiak, foroak, etab...

• Laguntza teknikoak ematea eta Teknologia Parke nazionalen zein nazioartekoekin lankidetzak hitzarmenak lortzea.

• Teknologia Parke nazionalen zein nazioartekoekin etorkizunerako laguntza teknikoak eta lankidetzak hitzarmenak garatzea APTEren bitartez.

• Ondokoekin hitzarmenak gauzatzea: Parkeak Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearekin, APTEekin (Espainiako Zientzia eta Teknologia Parkeen Elkartea), IASPEkin (International Association of Scientific Parks).

• Formalizar nuevas compras de terrenos en la Margen Izquierda y avance de las actuaciones en materia urbanística.

• Materializar el acuerdo con el Ayuntamiento de Bilbao y definición del proyecto para poner en marcha el Parque Tecnológico de Zorrozaurre.

En su conjunto, las inversiones previstas para el ejercicio 2.009 ascienden a 46 millones de Euros.

2.- Política del Área de Innovación

La política del Área de Innovación se divide en seis acciones concretas:

Acción 2.1: Promoción y difusión de la cultura de la Innovación

Con el objetivo de difundir las actividades de Empresas y agentes tecnológicos del Parque Tecnológico de Bizkaia y de acercar la Ciencia y la Innovación a las Empresas y a la Sociedad, se han definido las siguientes acciones:

• Ofrecer un servicio de alto valor añadido como interlocutor de los agentes tecnológicos del Sistema Vasco de Innovación en temas relacionados con las plataformas tecnológicas en las que participa y/o alberga.

• Divulgar la Ciencia y la Tecnología a través del nuevo centro de interpretación de las nuevas tecnologías BTEK.

• Organizar jornadas de difusión y transferencia de tecnología, desayunos tecnológicos y jornadas de puertas abiertas.

• Difundir la innovación a través de diferentes acciones de comunicación, como por ejemplo la edición de noticias sobre otros agentes relacionados con la Innovación.

Acción 2.2: Colaboración entre los agentes científico-tecnológicos y Empresas

Con el objetivo de apoyar y fomentar la colaboración entre los agentes científico-tecnológicos (Empresas, Centros Tecnológicos, Universidad, etc...) y potenciar la participación en redes nacionales e internacionales para facilitar la internacionalización de las Empresas, el nuevo Plan Estratégico de la Sociedad subdivide en ocho las acciones concretas a acometer:

• Organizar jornadas de difusión y transferencia tecnológica, desayunos tecnológicos, encuentros empresariales, seminarios, foros, etc...

• Prestar asistencia técnica y celebrar acuerdos de colaboración con Parques Tecnológicos nacionales e internacionales.

• Desarrollar futuras asistencias técnicas y acuerdos de colaboración con Parques Tecnológicos nacionales e internacionales a través de APTE.

• Celebrar acuerdos: Parkeak Red de Parques Tecnológicos de Euskadi, APTE (Asociación de Parques Científicos y Tecnológicos de España), IASP (International Association of Scientific Parks).

- I+G+B proiektu teknologikoak sustatzea, agente teknologikoen artean eta haiekin batera.
- Teknologiaren Transferentziarako Sarea indartzea.
- Hitzarmenak nazionalak nahiz nazioartekoak sinatzea Teknologia Parkeekin.
- Atzerriko bisitak jasotzea.

2.3. ekintza: Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea

UPV/EHUREkin lankidetzat-hitzarmena egin beharko da, Unibertsitatearekiko (erakunde gisa) eta ikerketa-taldeekiko lankidetzat indartzeko; eta, aldi berean, agente guztien artean (enpresak, zentro teknologikoak eta unibertsitatea) sinergiak sortzeko ikerketa aplikatuaren eta jakintzan esparruan. Ondorioz, unibertsitateetik etorritako ikerketa-taldeak erroto daitezke Parkean. Era berean, aintzat hartu behar dira UPV/EHUko Zientzia Parkea berriarekin sortu daitezkeen harreman espezifikoak.

2.4. ekintza: NEBTen (Oinarri Teknologikoko Enpresa Berriak) sorrera eta garapena bultzatzea eta sektore berriak sustatzea

Ekonomiaren garapena eta industriaren aniztasuna errazteko, enpresa-egitasmoetan lortutako I+G+B emaitzak aldatzeko, dauden enpresak sendotzeko eta oinarri teknologikoko enpresen bultzatzeko, honako ekintza hauek garatu beharko dira:

- Oinarri teknologikoko enpresa berrientzako inkubadorea sortzea beste agente batzuekin batera. Ekintza hau garatzen den bitartean, Izartek-ekin jarraitzea (BEAZekin batera egindako jarduera, hainbat sektoretan teknologikoki aurreratutak diren enpresen inkubazioaren alorrean).
- Biokabi-rekin orain arte egindako kudeaketarekin jarraitzea eta ahal den heinean bioinkubadorearen moduluak handitzea.
- Laguntza-deialdiarako aukerak erraztea.

2.5. ekintza: Enpresen eta Zentro Teknologikoen eta Ikerketa Zentroen I+G+Brako teknologikoki aurreratuta dauden zerbitzuen eskaintza erakargarria bultzatzea eta garatzea

Teknologikoki aurreratutak diren enpresak eta Zentro Teknologikoak erakartzeko asmoz, eta Bizkaiko Teknologia Parkeak teknologia berritzeko eta garatzeko duen gaitasuna ezagutzera emateko, honako ekintza hauek garatu beharko dira:

- Punta-puntako teknologia-ekipamenduetan inbertsioak egitea. Horretarako, alde zuzenetik plangintza egokia egin beharko da, bikoizketarik gerta ez dadin eta gaur egun sortzen ari diren enpresen azpiegiturak ez puzteko.
- Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren laguntzak jasotzeko bidea erraztea.
- I2Bask Sarea indartzea.

- Promover proyectos de I+D+i entre y con los agentes tecnológicos.
- Potenciar la Red de Transferencia de Tecnología.
- Firmar acuerdos internacionales y nacionales con Parques Tecnológicos.
- Recibir visitas internacionales.

Acción 2.3: Colaboración con la Universidad

Con el objetivo de reforzar la colaboración con la Universidad como entidad y con los distintos grupos de investigación y de crear sinergias en el campo de la investigación aplicada y el conocimiento entre los distintos agentes implicados (Empresas, Centros Tecnológicos y Universidad), que permitan la instalación en el Parque de grupos de investigación procedentes del ámbito universitario, se deberá de establecer un nuevo marco de colaboración con la UPV/EHU, teniendo en cuenta posibles relaciones específicas con el nuevo Parque Científico de la UPV/EHU.

Acción 2.4: Impulso a la creación y desarrollo de NEBTs (nuevas Empresas de base tecnológica) y a la potenciación de nuevos sectores

Con el objetivo de propiciar el desarrollo económico y la diversificación industrial, transformar los resultados obtenidos de I+D+i en proyectos empresariales, consolidar las Empresas existentes y alentar la creación de nuevas Empresas de base tecnológica, se deberán de desarrollar las siguientes acciones:

- Propiciar la creación de una incubadora para nuevas Empresas de base tecnológica, en colaboración con otros agentes, y durante el desarrollo de esta acción, continuar con Izartek, actividad conjunta con BEAZ en materia de incubación de Empresas tecnológicamente avanzadas de diferentes sectores de actividad.
- Continuar con la gestión desarrollada actualmente en relación con Biokabi y ampliar los módulos de la Bioincubadora.
- Facilitar el acceso a las convocatorias de ayudas.

Acción 2.5: Impulso y desarrollo de una oferta de servicios tecnológicamente avanzados atractiva para la I+D+i de Empresas y Centros Tecnológicos y de Investigación

Con el objetivo de atraer Empresas tecnológicamente avanzadas y Centros Tecnológicos, y de dar a conocer la potencialidad del Parque Tecnológico de Bizkaia como tractor de la innovación y el desarrollo tecnológico, se deberán de desarrollar las siguientes acciones:

- Realizar inversiones en equipamiento tecnológico de vanguardia, tras una adecuada planificación para evitar duplicidades y maximizar las infraestructuras existentes entre las Empresas de los sectores emergentes.
- Facilitar el acceso a las Ayudas del Ministerio de Educación y Ciencia.
- Potenciar la Red I2Bask.

- Azpiegitura berriak eta balizkoak enpresen eskura jartzea.

2.6. ekintza: Komunitate iraunkor eta parte-hartzailea bultzatzea

Honako ekintza hauek garatu beharko dira:

- Iraunkortasunaren Foroa dinamizatzea eta horren buru izatea zenbait arlotan, hala nola, garraioak, hondakinak, prestakuntza, enplegua eta energia, enpresen arteko lankidetzak sustatzeko.
- AISIATEK elkartearen dinamizatzea langileen ikuspegitik, aldi berean ahalik eta enpresa gehienentzako partaidetza lortzeko.

3.- Marketing-politika: Sustapen proaktiboko politika

Bizkaiko Teknologia Parkearen ohiko jardueraren hiru ardatzei dagozkion hiru jarduerak-lerroez gain, sustapen proaktiboko politika praktikan jarri beharko litzateke. Horren helburu nagusia hedapena izango litzateke, baina beste helburu estrategiko batzuk ere egongo lirateke: higiezinaren komertzializazioa, Bizkaiko Teknologia Parkearen sustapena, dibertsifikazioa (Parkean hazteko ahalmen handia duten sektore berrietara) eta okupazio-indizeak sendotzea (campus berrietan barne).

Sustapen-politika honen diseinuaren barruan honako ekintza hauek garatzen dira:

3.1. ekintza: Parkean kokatutako enpresei zuzendutako sustapen-ekintzak

Parkean kokatzen diren enpresak leialak izan daitezen ondoko ekintzak burutu beharko dira:

- Dagoeneko Parkean dauden enpresen handitzeko premiak antzematea eta aintzat hartzea. Bide horretatik lortuko da enpresak bertan izatea, beren leialtasuna lortuz. Horretarako etengabeko jarraipena egin behar zaie; banaka bisitatuz eta inkestak eginez.
- Enpresei eskainitako zerbitzuen hobekuntza sustatzea.
- Enpresei Parkearen jardueren berri ematea.

3.2. ekintza: Sektore berriei zuzendutako sustapen-ekintzak

Sortzen ari diren sektoreen presentzia indartzeko eta sektore horiekin lotura duten agenteen artean sinergiak sustatzeko, honako ekintza hauek egin beharko dira:

- Tartean dauden agente teknologikoekin lankidetzan aritzea, sektore berriak bultzatzeko.
- Agente hauen arteko partaidetza indartzea, beren arteko bileren bidez.

- Poner a disposición de las Empresas, tanto nuevas como potenciales infraestructuras.

Acción 2.6: Impulso a una comunidad sostenible y participativa

Se deberán de desarrollar las siguientes acciones:

- Dinamizar y liderar el Foro de Sostenibilidad para fomentar la colaboración entre Empresas en temas como transportes, residuos, formación, empleo y energía.
- Dinamizar la Asociación AISIATEK desde el punto de vista de los trabajadores, logrando al mismo tiempo la implicación del mayor número de Empresas posible.

3.- Política de Marketing: Política de promoción proactiva

Además de las tres líneas de actuación básicas correspondientes a los tres ejes de actividad tradicional del Parque Tecnológico de Bizkaia, se debería poner en práctica una política de promoción proactiva encaminada a la consecución del objetivo principal de expansión y otros objetivos estratégicos como la comercialización inmobiliaria y la promoción del Parque Tecnológico de Bizkaia y lograr la diversificación hacia nuevos sectores de alto potencial de crecimiento en el Parque, así como consolidar los índices de ocupación incluyendo los nuevos campus.

El diseño de esta política de promoción comprende las siguientes acciones:

Acción 3.1: Acciones promocionales hacia las Empresas ubicadas en el Parque

Con el objetivo de fidelizar a las Empresas ubicadas en el Parque se deberán de completar las siguientes acciones:

- Captar y tener en cuenta las necesidades de ampliación de las Empresas ya instaladas es una manera de consolidar la presencia empresarial a través de la fidelización de las Empresas. Implica un seguimiento continuo de éstas, mediante visitas individualizadas y la realización de encuestas.
- Promover la mejora de los servicios ofrecidos a las Empresas.
- Difundir entre las Empresas las actividades realizadas por el Parque.

Acción 3.2: Acciones promocionales hacia sectores emergentes

Con el objetivo de consolidar la presencia de sectores emergentes y de fomentar las sinergias entre los agentes relacionados con sectores emergentes, se deberán de completar las siguientes acciones:

- Colaborar con los agentes tecnológicos implicados para impulsar nuevos sectores.
- Potenciar la participación de estos agentes a través del instrumento de reuniones entre ellos.

- Sektoreetako klusterrekin lankidetzan jardutea, sortzen ari diren azpisektore berriak antzemateko.

3.3. ekintza: Erakundeekiko hitzarmenak

Honako ekintza hauek garatuko dira:

- Adostutako ekintzen garapena sustatzea zenbait arlotan (garraioa eta finantzaketa).
- Gune berrien sorrera eta garapena bultzatzea (Ezkerraldeko Campusa, Zorrozaurreko Teknologia Parkea, UPV/EHUko Zientzia Parkea, Neutroien Espalazio Iturria).
- Gizarterako hurbilketa sustatzea BTEKen bitartez.
- Enpresa handiak eta enpresak, oro har, erakartzea.

3.4. ekintza: Enpresa berriak erakartzea

Horretarako, enpresei zuzendutako komunikazio-ekintzak landuko dira, Parkean enpresen kokapena indartzeko erakundeekiko hitzarmenak prestatuko dira, Parkera enpresak erakartzeko balizko agenteekin lankidetzak bultzatuko da eta Parkeko enpresek komunikazioa indartuko da haiekin harremanetan aritzen diren enpresak Parkera erakartzeko.

3.5. ekintza: Komunikazio-ekintzak

Parkearen irudia sendotzeko eta gune berriak sustatzeko, honako ekintza hauek osatu beharko dira:

- Komunikazio-bideak etengabe eguneratzea (aldian aldiko argitalpenak, webgunea eta abar). Ildo horretan, besteak beste, Euskotek hiruhilabetekaria eta Parkea buletin hilabetekaria argitaratzen jarraituko dira. Halaber, beharrezkoa izango da katalogoekin, prentsa-oharrekin, iragarkiekin eta egokitzen hartzen diren Parkea sustatzeko bestelako euskarriekin jarraitzea.
- Gune berrientzako Komunikazio Plana osatzea.

3.6. ekintza: Parkearen eta Euskadiren irudia Berrikuntzarako gune erakargarri gisa sustatzeko ekintzak

Helburu hori lortzeko, Euskadiren irudia sustatu eta hedatu beharko da, eta Euskadiko Parkeen eredia esportatzea bide egokia da, nazioartean imitatu beharreko esperientzia moduan. Lan hauek egin beharko dira helburu horiek lortzeko:

- Nazioarteko erakundeetako ordezkartzen, enpresen eta hezkuntza-adituen bisitak izatea.
- Foroetan eta kongresu nazioartean zein nazioartekoetan parte hartzea.
- Bizkaiko Teknologia Parkearen eredia esportatzea, litezkeen aholkularitza-proiektuetan ere parte hartuz.
- Nazioarteko ferietan parte hartzea.

- Cooperar con los clusters sectoriales en la definición de nuevos subsectores emergentes.

Acción 3.3: Acuerdos institucionales

Se desarrollarán las siguientes acciones:

- Promover el desarrollo de acciones consensuadas en diferentes áreas (transporte y financiación).
- Impulsar la creación y el desarrollo de los nuevos espacios (Campus de la Margen Izquierda, Parque Tecnológico de Zorrozaurre, Parque Científico de la UPV/EHU, Fuente de Espalación de Neutrones).
- Potenciar el acercamiento a la Sociedad a través de BTEK.
- Lograr la atracción de grandes Empresas y Empresas en general.

Acción 3.4: Atracción de nuevas Empresas

Para ello, se elaborarán acciones de comunicación dirigidas a Empresas, se prepararán acuerdos institucionales para potenciar la instalación de Empresas en el Parque, se promoverá la colaboración con prescriptores susceptibles de atraer Empresas al Parque y se reforzará la comunicación con las Empresas instaladas para traccionar la implantación en el Parque de Empresas relacionadas con ellas.

Acción 3.5: Acciones de comunicación

Con el objetivo de consolidar la imagen del Parque y de promocionar los nuevos espacios, se deberán de completar las siguientes acciones:

- Se ha realizado una intensa labor de apoyo a las Empresas y Centros Tecnológicos a través de la tramitación de las Convocatorias 2008 de ayudas a proyectos de I+D realizados en Parques Científicos y Tecnológicos del Ministerio de Ciencia e Innovación (Convocatoria de Investigación aplicada y Convocatoria de Infraestructuras y de Equipamientos Científico-Tecnológicos), presentándose un total de 16 proyectos y una solicitud de ayudas de 44,07 millones de euros, para el ejercicio 2008.
- Se ha continuado con la realización de actividades ligadas al fomento y apoyo a la internacionalización de las empresas ubicadas en el entorno del Parque, colaborando en la organización de los Encuentros Internacionales de la Red Internacional de SPRI.
- Se han realizado labores de promoción del Parque participando en diversos foros y congresos de índole nacional e internacional (Asociación Internacional de Parques Tecnológicos, Asociación Europea de Profesionales de la Transferencia de Ciencia y Tecnología, etc.) y atendiendo a la visita de delegaciones institucionales y empresariales, lo que ha permitido dar a conocer el modelo del Parque Tecnológico.
- Se ha continuado con la labor de promoción y acercamiento de la Ciencia y la Tecnología al ámbito social. En este sentido se ha puesto en marcha la X Jornada de Puertas Abiertas, enmarcada dentro de la Semana Europea de la Ciencia y la Tecnología. Organizada en colaboración con la Universidad del País Vasco UPV/EHU, la jornada ha alcanzado, con la presencia de más de 5.000 visitantes, su record histórico.
- Se ha iniciado el programa MIE Microrred Integral Energética – Red de suministro energético global al Parque Tecnológico de Álava mediante energías renovables. El objetivo de este Programa plurianual es el de desarrollar e integrar nuevas tecnologías de generación energética, de origen preferentemente renovable, que de servicio a los usuarios del Parque y que permita generar e implementar nuevos productos, equipos, metodologías y sistemas por parte de los diversos agentes científico-tecnológicos del sector energético vasco que participan en el Programa.
- Se ha puesto en marcha el Diagnóstico de Necesidades de Formación del Parque Tecnológico de Álava con el objetivo de dotar al mismo del conocimiento cualitativo y cuantitativo de las carencias y necesidades formativas de las empresas y de sus trabajadores, lo que permitirá elaborar e implementar el futuro Plan de Formación del Parque.

MERKATARITZA ETA MARKETIN ARLOA

2008. ekitaldian ere, merkataritza politika biziari eta zuzenari eutsi zaio, eta merkataritza zein komunikazio-ahalegin handiak egin dira, Teknologi Parkean puntako teknologiadun enpresa gehiago koka daitezkeen, hau da, ikerketa eta berrikuntza sustatzen dutenak, eta hirugarren sektore aurreratukoak (aeronautika, telekomunikazioak, informatika, energia, elektronika, I+G, ingeniariaritza, bioteknologia medikoa, automatika, ingurumena...) direnak eta Arabako Teknologi Parkearen bereizgarri direnak.

AREA COMERCIAL Y DE MARKETING

Durante el ejercicio 2008 se ha continuado con una política comercial activa y directa y se han realizado importantes esfuerzos comerciales y de comunicación con el objetivo de conseguir mayores niveles de ocupación del Parque Tecnológico por empresas tecnológicamente punteras, que potencien la investigación y la innovación y pertenecientes a sectores terciarios avanzados como aeronáutica, telecomunicaciones, informática, energía, electrónica, I+D, ingeniería, biotecnología-médica, automática, medio ambiente... cuya presencia caracteriza al Parque Tecnológico de Álava.

Hauek dira lorpenik garrantzitsuenak:

- 30.000 m² inguruko lursail saltzea, enpresa berriak instalatzeko: 2 milioi euro baino gehiago irabazi dira.
- Nabarmen gehitu da akurako eraikinen okupazio-maila: %83ra arte heldu da. Izan ere, errentamenduagatik diru-sarrerak 2007koak baino %15 handiagoak izan dira. Egoera horrek, Vitoria-Gasteizko errentamenduaren erreferente gisa sendotzen gaitu, Parkean badauden enprekin zerikusia duten enpresak erakartzen ditu eta akurako enpresentzat eraikinak eraikitzen jarraitzeko politika indartzen du.
- 10 enpresa berri kokatu dira, eta honela, 110 enpresa daude guztira 2008ko abenduaren 31n; haietatik 48, euren eraikinetan. Enpreson fakturazioa 600 milioi euroko baino gehiagokoa da orotara. Parkean kokatutako enpresen plantilla edo lanpostuen zerrenda osoa, 3.300 lagunetik gorakoa da; langileen erdia, %50, goi-mailako tituludunak dira, eta %24k I+Gko jardueretan dihardu.
- Merkataritza-ahalegina egin da, Teknologi Parke batetik kanpo kokatzen diren baina bere barruan koka daitezkeen enpresak aztertzeko. Enpresa-mota hau jabetu behar da egungo kokatzearen eta Teknologi Parkeko kokatzearen arteko desberdintasunez. Ohartu behar da, Teknologi Parke batek ematen dituen zerbitzuen kalitateaz, enpresa-kokapenaren bitxitasunaz eta inguru ikertzaile eta berritzaile horretan egoteak emango dion irudiaz -benetakoa zein bikaintasunekoagainerako enpresek izango ez dutenaz.
- Kanpo- zein barne-komunikazioko kanpainak hobetu eta areagotu egin dira, orain arte garatu diren tresnez eta euskarriez baliatuz (Euskotek hiruhilabetekaria, Parkea bihilabetekaria, prentsa-oharrak, besteak beste), eta kanpoko komunikabideetan parte hartuz (Apte Techno hiruhilabetekaria, besteak beste). Aipatzekoa da, Arabako Teknologi Parkearen web orrialde berria abiarazi dela: Alava www.pt-alava.es.
- Aktiboak ahalik eta gehien ustiatzeko, eta Teknologi Parkea, enpresak elkartzeko gune ez ezik, ezagutza transferitzeko eta teknologia zein berrikuntzaren kultura hedatzeko gune nagusienetakoa ere bilaka dadin, aipatu beharra dago zerbitzu orokorretan izan den erabilera-maila handia: esaterako, hainbat mintegi, biltzar eta bilera egin dira (400 bilera inguru, 12.500 lagun bertaratu direla), eta garrantzi handiko ekitaldietan parte hartu da, batzuk arras garrantzitsuak gizarte eta ekonomia mailan.

ARLO TEKNIKOAK, MANTENTZE-ARLOA

2008. ekitaldiak inbertsio-bolumen handia izan du bereizgarri, enpresei Teknologi Parkeek oinarritzko eta bereizgarri duten osagaia eskaintzeko beharra dela eta. Halaber, Arabako Teknologi Parkean proiektu estrategiko batzuei ekin zaie, hala nola:

- E-8 eraikina, 14.3. lursailean dagoena, eraikitzen hasi da. Ekitaldian zehar, eraikuntzaren lehiaketa egin da eta eraikitzeko lanak hasi dira. 2010. urtean bukatuko omen dute eraikitzen.
- Arabako Teknologi Parkea handitzeko lursailen hirigintza-antolakuntzarako lehiaketa. Urbanizazio-obra 4 urte barru hasiko omen dira.

Los logros más relevantes han sido los siguientes:

- Ventas de terrenos para la instalación de nuevas empresas por aproximadamente 30.000 metros cuadrados, lo que ha supuesto más de 2 millones de euros de facturación.
- Incremento significativo del nivel de ocupación de los edificios en alquiler alcanzando el 83%; con un incremento de los ingresos por arrendamiento del 15% respecto a los del año 2007. Esta situación nos consolida como referente del arrendamiento en Vitoria-Gasteiz, atrae a nuevas empresas relacionadas con las anteriores y refuerza la política de continuar construyendo edificios para empresas en régimen de alquiler.
- La instalación de 10 nuevas Empresas, de modo que, a 31 de diciembre de 2008, el número total asciende a 110 Empresas, de las que 48 se encuentran en edificio propio. La facturación total de estas empresas supera los 600 millones de Euros, situándose la plantilla total en más de 3.300 personas, de las que el 50% son titulados superiores y el 24% se dedica a actividades de I+D.
- Se ha realizado un esfuerzo comercial destinado al análisis de las empresas susceptibles de localizarse en un Parque Tecnológico y que se localizan fuera de dicho entorno. Este tipo de empresas deben apreciar las diferencias existentes entre su localización actual y la oferta del Parque Tecnológico, en la calidad de los servicios recibidos, la singularidad de la localización empresarial, así como el entorno investigador e innovador que aportarán al desarrollo empresarial una gran imagen tanto real como de excelencia frente a las empresas con las que se relaciona.
- Mejora e intensificación de las campañas de comunicación externa e interna, aprovechando las herramientas y los soportes desarrollados (revista trimestral -Euskotek-, boletín bimensual -Parkea-, notas de prensa, etc.) así como la participación en medios externos (revista trimestral -Apte Techno-, etc.). Destaca la puesta en marcha de la nueva página web del Parque Tecnológico de Álava www.pt-alava.es.
- En aras a conseguir el máximo aprovechamiento de los activos y que el Parque Tecnológico se convierta, no solo en lugar de encuentro de Empresas, sino en uno de los principales focos de transferencia de conocimiento y de difusión de tecnología y de la cultura de la innovación, es destacable el importante grado de utilización de sus servicios comunes. Así, merece especial mención la celebración de numerosos seminarios, convenciones, asambleas... (aproximadamente 400 reuniones, con más de 12.500 asistentes) y la participación en eventos de enorme trascendencia, económica y social.

ÁREA TÉCNICA Y MANTENIMIENTO

El ejercicio 2008 se ha caracterizado por ser un ejercicio con un significativo volumen de inversiones en la necesidad de ofrecer a las empresas un elemento diferenciados básico y característico de los Parques Tecnológicos y el comienzo de proyectos estratégicos para el Parque Tecnológico de Álava, que podemos resumir en:

- Inicio de la construcción del Edificio E-8, localizado en la parcela 14.3. Durante el ejercicio se ha realizado el concurso de construcción y se han iniciado las obras de su construcción que finalizarán a lo largo del 2010.
- Concurso de ordenación urbanística de los terrenos de ampliación del Parque Tecnológico de Álava. Las obras de urbanización comenzarán previsiblemente dentro de 4 años.

- Arabako Teknologi Parkeak IHOBErekin eta Euskal Ur Agentziarekin ari izan da elkarlanean, Arabako Teknologi Parke guztirako mugikortasun iraunkor eta segururako plana egiten eta planaren ondorio diren neurriak ezartzen, Arabako Teknologi Parkean lan egiten duten pertsonen mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, alderdi energetikoei, ingurumen-alderdiei, eta gizarte- eta ekonomia-alderdiei dagokienez.
- Gaur egun, Arabako Teknologi Parkeak 8 eraikin barne hartzen ditu, eduki desberdinetakoak: jatetxe-kafetegiko eraikina, enpresak kokatzeko (salmentan edo akuran) 5 eraikin, erakusketa-aretoa (600 metro koadro diafano) edo eraikin nagusia. Instalazioak behar bezala ibil daitezzen, garrantzi handikoa da mantentze-sistema egokia izatea: berariazko jarduerak eta jarduera teknikoak azpikontratzen dituen eta mantentzaileak kontrolatzen dituen.
- Segurtasun eta CCTV sistemak optimizatzea, ekipamendu modernoak instalatuz, Parkearen hedapen-zonetan segurtasuna bermatzeko helburuarekin.
- Eguzki-instalazio fotovoltaikoa, Eraikin Nagusiko aparkalekuan. Arabako Teknologi Parkeak lankidetzahitzarmena sinatu du Energiaren Euskal Erakundearekin, Eraikin Nagusiko aparkalekuan 200 kW-ko eguzki-instalazio fotovoltaikoa muntatzeko.
- Hondakin-uren araztegia optimizatzea. 10 urtez ibili ondoren, 2008an instalazio horretan berrikuntza garrantzitsuak burutu dira, funtzionamendua optimizatzeke eta isurketen tratamenduaren kalitatea bermatzeko helburuz.
- Eraikin Nagusiko instalazioetan ikus-entzunezko sistemetan inbertitu da, gure instalazioen balio erantsia sustatzeko helburuz, erabiltzaile berriak erakartzearren.
- Ekitaldi guztietan bezala, instalazioetan eta komunikazioetako sistema aurreratuetan inbertitu da, enpresei Teknologi Parkeek oinarritzko eta bereizgarri duten osagaia eskaintzeko beharra dela eta. Era berean, azpiegitura honen bidez, edukiak eman eta balio erantsiko zerbitzu berriez hornitu beharko da.
- Ohizko inbertsioak, bolumen gutxikoak (altzariak) ere egin dira, baita barne-kudeaketa hobetzeko eta sozietatearen eraginkortasuna hobetzeko (ekipamendu informatikoak) beharrezkoak direnak ere.

ADMINISTRAZIO ETA EKONOMIA ZEIN FINANTZA ARLOA

Barne-kudeaketa hobetzen jarraitu da, eta ekintza hauek egin dira, besteak beste: baliabideak eraginkortasunez kudeatu dira, informazio-sistemak etengabe eguneratu dira, gastuari eutsi zaio, barne-prozedura guztiak aztertu dira, kanpo-zerbitzuak kontratatzeke eta kontrolatzeko moduak etengabe moldatu dira, hobekuntza-taldeekin esperientziak izan dira, barne- eta kanpo-komunikazioak hobetu egin dira... Hitz batez, emandako zerbitzuak eraginkorragoak eta hobeak izan dira. Bost ekintza hauek azpimarratuko ditugu:

AREA ADMINISTRATIVA Y ECONÓMICO FINANCIERA

Se ha continuado con el proceso de mejora de la gestión interna basada, entre otros, en los siguientes pilares: gestión eficiente de los recursos, permanente actualización de los sistemas de información, control del gasto, revisión de todos los procedimientos internos, permanente adecuación de los mecanismos de contratación y control de los servicios externos, experiencia con grupos de mejora, comunicación externa e interna, etc. con la consiguiente mejora de la eficiencia y de la calidad de los servicios prestados. Destacar especialmente cinco hechos:

- 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoko kontratuei buruzkoa (LCSP), indarrean jarri dela bide, Parque Tecnológico de Álava, S.A. – Arabako Teknologi Parkeak kontratatzailearen profila taxutu du, eta Kontratatzeko Barne Jarraibideak (IIC) eman ditu, sozietateak kontratuak esleitzeko dituen barne-prozedurak arautzeko helburuz, zabalkundearen, lehiaren, gardentasunaren, konfidentziasunaren, berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioen eraginkortasuna berma dadin, eta kontratua, ekonomikoki onuragarrien den eskaintza aurkezten zaionari esleitzen dadin, LCSPren 176.3. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

IIC direlakoak nahitaez betebeharrekoak dira Parque Tecnológico de Álava, S.A. – Arabako Teknologi Parkearen barne-eremuan; jarraibideak araututako kontratuen esleipen-prozeduretan parte hartu nahi duten guztien eskura jarriko dira, eta www.pt-alava.es web orriaren kontratatzailearen profilean argitaratu dira.

- 1514/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontabilitateko Plan Orokor berria onetsi zuena (2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko diren ekitaldietan nahitaez betebeharrekoa) indarrean jarri dela bide, Parque Tecnológico de Álava, S.A. – Arabako Teknologi Parkeak bere kontabilitatea arautegi berrira egokitu du, eta baliabideak erabili ditu prestakuntzan eta egokitzapen osoan.

- Egungo kudeaketa-tresnak eguneratu dira, hala nola, barneko merkataritza-kudeaketa, ekitaldien kudeaketa edo eskuratzeeen edo fakturazioaren programetan egindako aldaketak, eta kudeaketa integraleko tresna berriak – Euskadiko Teknologi Parkeen Sarearen neurriari egin dena- ezarri dira.

Era berean, eta Arabako Teknologi Parkeko arlo guztiek sortutako jardueraren gauzatze ekonomiko bezala, emaitza positiboa izateko joera sendotu egin da. Egoera honi esker, kudeaketako baliabide ekonomikoak sor daitezke; egoera honek, halaber, Teknologi Parkearen lehenengo bizitza-urteen ondoren emaitzen joera sendotu egin dela indartzen du, sendotze- eta finkatze-denboraldi batean sartu dela.

Azken buruan, 2008. ekitaldian jarritako helburuak, kuantitatiboak nahiz kualitatiboak eta merkataritzakoak, gainditu egin dira, eta proiektuetan, enpresetan eta okupazioan lortu diren mailak, Arabako Teknologi Parkearen enpresa-ingurunea hirugarrenengandik bereizi eta pertsonalizatzen dutenak, Arabako Lurralde Historikoko industriaren eta teknologiaren politikako tresnarik onena bilakatuz. Horri gehitu beharko zaio, jakina, helburu kualitatiboagoak betetzea, hala nola:

- Euskal Autonomia Erkidegoaren irudi berria sustatu eta hedatzea: hain zuzen ere, Euskal Parkeen eredia atzerrian imitatzeke esperientzia gisa esportatzeaz gain, aipatu beharra dago, hainbat herrialdetako erakundetako, enpresatako eta ikastegitako hainbat ordezkari inguratu direla gurera, gure Teknologi Parkearen eredia zuzenean ezagutzeko. Gainera, biziki parte hartu da Parkearen ezaugarriak edo nolakotasuna hedatzen, hain zuzen ere, bertoko zein atzerriko hainbat eztabaida-lekutan zein biltzarretan parte hartuz.

- Esandako guztia, Euskal Ekonomia etengabe hobetzeko helburuarekin dator bat: baliabideak eta balio erantsia sortzea, enpresa-ehuna dibertsifikatzen laguntzea, enplegua sortzea, enpresa traktoreak ezartzea, eta berrikuntzari eta garapen teknologikoari laguntza ematea.

- Con motivo de la entrada en vigor de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de contratos del Sector Público (LCSP), el Parque Tecnológico de Álava, S.A. ha elaborado un perfil del contratante, emitiendo las Instrucciones Internas de Contratación (IIC) que tienen por objeto regular los procedimientos internos de la Sociedad para la adjudicación de los contratos, de forma que quede garantizada la efectividad de los principios de publicidad, concurrencia, transparencia, confidencialidad, igualdad y no discriminación, así como que el contrato sea adjudicado a quien presente la oferta económicamente más ventajosa, dando con ello pleno cumplimiento al mandato del artículo 176.3 de la LCSP.

Las IIC resultan de obligado cumplimiento en el ámbito interno de Parque Tecnológico de Álava, S.A. y deberán ponerse a disposición de todos los interesados en participar en los procedimientos de adjudicación de los contratos regulados por ellas y se han publicado en el perfil de contratante de la web www.pt-alava.es.

- Con motivo de la entrada en vigor del Real Decreto 1514/2007, de 16 de noviembre, por el que se aprobó el Nuevo Plan General de Contabilidad, de aplicación obligatoria para los ejercicios que comiencen a partir del 1 de enero de 2008, el Parque Tecnológico de Álava, S.A. ha adaptado su contabilidad a la nueva normativa destinando recursos en formación y adaptación completa.

- Actualización de las herramientas de gestión actuales como la gestión comercial interna, la gestión de eventos o las modificaciones efectuadas en los programas de adquisiciones o facturación y la implementación de una nueva herramienta de gestión integral y desarrollada a medida para los Parques Tecnológicos de la Red de Parques Tecnológicos de Euskadi.

Adicionalmente y como materialización económica de la actividad generada por todas las áreas de gestión del Parque Tecnológico de Álava, se ha consolidado la tendencia con un resultado positivo. Esta situación permite la generación de recursos económicos de gestión y confirma una consolidación en la tendencia de resultados tras los primeros años de vida del Parque Tecnológico, entrando en un periodo de consolidación y afianzamiento.

En definitiva, durante el ejercicio 2008 se han sobrepasado las metas fijadas, tanto cuantitativas como cualitativas y de carácter comercial, alcanzando unos niveles de proyectos, empresas y ocupación que distinguen y personalizan frente a terceros el entorno empresarial Parque Tecnológico de Álava, que lo convierten en la mejor herramienta de política industrial y tecnológica del Territorio Histórico de Álava. A ello, habría que añadir, por supuesto, el cumplimiento generalizado de los objetivos de tipo más cualitativo, como:

- Promover y difundir una nueva imagen de la Comunidad Autónoma de Euskadi. En concreto, además de la exportación del modelo de Parques Vascos como experiencia a imitar en el exterior, destacar las visitas recibidas de delegaciones institucionales, empresariales y académicas de distintos países, interesadas en conocer de primera mano el modelo de nuestro Parque Tecnológico, así como la difusión realizada de las características del Parque mediante la participación en diversos foros y congresos nacionales e internacionales.

- A su vez, cuanto se ha citado está en consonancia con el objetivo de contribución a la mejora permanente de la Economía Vasca, lo que se traduce en la generación de recursos y de valor añadido, en la contribución a la diversificación del tejido empresarial, en la generación de empleo, en la implantación de Empresas tractoras; y en el apoyo a la innovación y al desarrollo tecnológico.

4. 2.009. URTERAKO HELBURU OROKORRAK ETA HELBURUON KUANTIFIKAZIOA

Euskal erakundeek Europarekin teknologi elkarganatzea lortzeko duten apustu irmoa, Teknologi Parkeen oinarriko bi ezaugarriekin batera (Zientzia-Teknologia-Enpresa sistema egituratzeko gaitasuna eta I+G+b-ren hazkundearen bizkortzaile izatea), 2006-2009. urteetarako Enpresa Lehiakortasunaren eta Gizarte Berrikuntzaren Planean eta Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren 2010. urteko Planean berrikuntzaren euskarri gisa duten zeregin garrantzitsua dakar berekin. Erronka hauek, inolako zalantzarik gabe, Teknologi Parkearen jarduera arlo hauetara bideratuko duten ahaleginei eta baliabideei ekitera behartzen dute.

Esandakoarekin konformatu beharrean, ordea, 2007an sozietatearen estrategiaz egindako azken azterketak, aldaketa kualitatibo handia eragin zuen, Parkearen garapen eta kudeaketarekin jarraitzeaz gain, Arabako Teknologi Parkea Proiektua handitzeko helburua lor dadin.

Azken finean, Baltzuak erronka berriak, estrategikoak gehienak, izango ditu, ekitaldi bakar batean lortu ezin direnak. Gutxienez, 2009-2012. denboraldian ekin beharko zaie.

Jarraian, 2009. urterako helburu nagusiezin arituko gara, lehenengo eta behin, helburu orokorrez. Helburuotatik ondorioztatuko dira dagozkien politikak edo ekintza-planak.

Euskal Ekonomia etengabe hobetzen laguntzen jarraitzea da Baltzuaren helburu nagusia. Hitz batez:

- Baliabideak eta balio erantsia sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoarentzat eta Euskal Sektore Publikoarentzat.
- Enpresa-ehuna dibertsifikatzen laguntzea.
- Euskadiko Ekonomian enpresa traktoreak izango direnak geureganatzea.
- Enplegua sortzea.
- Berrikuntzari eta Teknologia-garapenari laguntza ematea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-irudia hobetzea, Erkidegoan bertan zein kanpoan erakutsiz.

Hau guztia kontuan izanik, 2009. urterako helburu orokorrek zehaztuko dira, jarduera-arloen arabera:

BERRIKUNTZA-ARLOA ETA TEKNOLOGIA BERRIAK

Arlo honek ekintza hauek burutzea du helburu nagusi:

- Arabako Teknologi Parkean kokatutako enpresek, enpresa-sustapeneko tresnak erraz eskura ditzaten.
- Jarduera eta teknologi sektore berriak erakarri, dibertsifikatu, garatu eta sustatzeko tresna berriak abiaraztea.

4. OBJETIVOS GENERALES PARA 2009 Y SU CUANTIFICACIÓN

La apuesta decidida de las Instituciones Vascas por lograr la convergencia tecnológica con Europa, ligada a dos cualidades básicas de los Parques Tecnológicos, como son su capacidad para vertebrar el sistema Ciencia-Tecnología-Enpresa y el hecho de ser aceleradores del crecimiento de la I+D+i, se traduce en el importante papel de soporte a la innovación que se les reserva en el Plan de Competitividad Empresarial e Innovación Social 2006-2009 y en el Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010. Estos retos obligan sin duda a continuar con los esfuerzos y recursos que permitan seguir orientando la actividad del Parque Tecnológico hacia estos ámbitos.

Pero lejos de conformarse con lo citado, una última revisión de la estrategia de la sociedad en el 2007 provocó un salto cualitativo de enorme calado, de manera que, además de continuar con el desarrollo y la gestión del Parque, se consiga el objetivo de la ampliación del Proyecto Parque Tecnológico de Álava.

En definitiva, la sociedad debe enfrentarse a nuevos retos, la mayoría de carácter estratégico, y, por tanto, el horizonte temporal de los mismos no puede limitarse a un solo ejercicio. Se considera que, como mínimo, van a condicionar las actuaciones del período 2009-2012.

A continuación, comenzando por los más generales, se describen los principales objetivos para el año 2009, de los que, por tanto, se derivarán las oportunas políticas o planes de acción.

El objetivo principal que persigue la sociedad es seguir contribuyendo a la mejora permanente de la Economía Vasca, lo cual puede sintetizarse de la siguiente forma:

- Generación de recursos y de valor añadido para la Comunidad Autónoma de Euskadi y para el Sector Público Vasco.
- Contribución a la diversificación del tejido empresarial.
- Atracción de Empresas tractoras para la economía de Euskadi.
- Generación de empleo.
- Apoyo a la innovación y al desarrollo tecnológico.
- Mejora de la imagen empresarial de la Comunidad Autónoma de Euskadi, con efecto demostración dentro y fuera de ella.

Con esta base, a continuación se describen los objetivos generales para el año 2009 por áreas de actividad.

ÁREA DE INNOVACIÓN Y NUEVAS TECNOLOGÍAS

La misión fundamental de este Área se concreta básicamente en las siguientes acciones:

- Facilitar el acceso de las empresas ubicadas en el Parque Tecnológico de Álava a los instrumentos existentes de promoción empresarial.
- Puesta en marcha de nuevos instrumentos necesarios para la atracción, diversificación, desarrollo y promoción de nuevas actividades y sectores tecnológicos.

- Oinarri teknologikoko enpresa berriak (NEBT) eratu eta garatzen lagundu eta sustatzearekin eta kultura ekintzailea zabaltzearekin zerikusia duten jarduerak abiaraztea.
- Arabako enpresa-ehuna gai honekiko sentikor bihurtzeko eta enpreson artean berrikuntza sistematikoa sustatzeko jarduerak garatzea.
- Jarduerak antolatzea (jardunaldi teknologikoak, mintegiak, enpresen elkarraldiak, etab.) eta topagune edo ekitaldi interesgarrietan gogoz parte hartzea, zientzi eta teknologi ekileen artean teknologia- eta ezagutza-transferentzia sustatzeko helburuz.
- Komunikazio-sistemak eta sistema horien bitartez eskain daitezkeen zerbitzuak edo edukiak etengabe egokitzea, eta enpresak elkarrekin edota Teknologi Zentroekin eta Unibertsitateekin harremanetan jartzeko sareak –estatukoak zein atzerrikoak- jartzea enpresen eskura.

Azken buruan, berrikuntzako gaietan egindako ahalegin eta baliabideei ekiten jarraitzea, Parkearen jarduerak honako hau izan dezala oinarri:

- Teknologia- eta ezagutza-transferentzia sustatzea eta berrikuntza eta ekintzaitelza-kultura zabaltzea.
- Oinarri teknologikodun egitasmo berriak sustatzea, gaur egungo tresnak egoki kudeatuz edo etorkizuneko edozein formula baliagarri egoki erabiliz.
- Parkeetako ekileen arteko lankidetzaren areagotzea, nazioko zein atzerriko informazioa eta harremanak erraztuz. Funtsezkoa izango da, horretarako, Sareetako kide izatea eta hitzarmenak sinatzea.
- Unibertsitateekiko eta Teknologi Zentroekiko lankidetzaren harremanak bultzatzea: Parkeek, I+G+Bko proiektuetan, prestakuntzako berriazko egitarauetan, ikertzaile-taldeak erakartzeko egitarauetan eta abarretan parte har dezaten.

MERKATARITZA- ETA MARKETIN-ARLOA

Bi helburu daude: alde batetik, lokalen okupazio-indize handiei eustea eta Parkearen eremuan lursailak erosteko asmoa duten enpresak erakartzea, eta, bestetik, Teknologi Parkearen Ezkerraldeko eraikuntza-proiektua arrakastaz abiaraztea. Bi helburuok erdiesteko, gogor egin beharko da lan merkataritza-arloan eta komunikazio-arloan. Horretarako, betidanik Baltzuaren bereizgarri zein euskarri izan diren sektoreetan modu proaktiboan jarduteaz eta ekintza zuzenak burutzeaz gain, sektore sektore teknologiko berrien alde jardungo da, betiere, enpresa berritzaileen edo goi-teknologiako enpresen segmentuan.

Era berean, 2008an ekonomiaren hazkunde-eritmoa mantsotu egin da, hots, “dezelerazioaldian” sartu da, eta, beraz, merkataritza- eta marketin-jarduerak berriak garatu beharra dago 2009. ekitalditik aurrera, Arabako Teknologi Parkean kokatuta badauden eta kokatzeko prozesuan dauden enpresei laguntzeko asmoz, ziklo ekonomiko larri horri aurre egiteko.

Hortaz, emaitza hauek lortu beharko dira:

- Puesta en marcha de actividades ligadas al apoyo y promoción de la creación y desarrollo de Nuevas Empresas de Base Tecnológica (NEBT), y a la difusión de la cultura emprendedora.
- Desarrollo de actividades dirigidas a la sensibilización y a la promoción de la innovación sistemática en el tejido empresarial alavés.
- Organización de actividades (jornadas tecnológicas, seminarios, encuentros empresariales, etc.) y participación activa en foros, eventos, etc. de interés, todo ello en aras a lograr las metas de fomentar la transferencia de tecnología y conocimiento entre los agentes científico-tecnológicos.
- Permanente adecuación de los sistemas de comunicaciones y de los servicios o contenidos que se puedan ofertar a través de éstos, poniendo a disposición de las Empresas redes a nivel nacional e internacional que permitan interconexiones entre ellas y con los Centros Tecnológicos y Universidades.

En definitiva, continuar con los esfuerzos y recursos en materia de innovación, de manera que se siga orientando la actividad del Parque hacia:

- Fomentar la transferencia de tecnología y conocimiento y difundir la cultura de la innovación y del emprendizaje.
- Potenciar la promoción de nuevos proyectos de base tecnológica, mediante la adecuada gestión de instrumentos ya creados o a través de cualquier otra fórmula que en el futuro se pueda considerar de interés.
- Intensificar la cooperación entre los distintos agentes de los Parques, facilitando información y contactos a escala nacional e internacional. Para ello, resultará clave la pertenencia a Redes y la formalización de convenios.
- Potenciar actuaciones de colaboración con Universidades y Centros Tecnológicos: participación directa de Parques en proyectos de I+D+I, programas específicos de formación, atracción de grupos de investigadores, etc..

ÁREA COMERCIAL Y DE MARKETING

El doble objetivo de mantener la situación de elevados índices de ocupación de locales y de atraer a nuevas Empresas dispuestas a adquirir parcelas de terreno en el actual espacio del Parque, obliga a redoblar esfuerzos en materia comercial y de comunicación. Para ello, además de actuar de manera proactiva y con acciones directas sobre los sectores que tradicionalmente han caracterizado y han dado sentido a la actividad de la sociedad, se va a intensificar la apuesta hacia nuevos sectores tecnológicos, siempre dentro del segmento de empresas innovadoras o de alta tecnología.

Adicionalmente, en el año 2008 la economía ha entrado en un momento de desaceleración económica, por lo que se deben desarrollar nuevas actividades comerciales y de marketing a partir del ejercicio 2009 orientadas a apoyar a las empresas instaladas y en proceso de instalación en el Parque Tecnológico de Álava, para afrontar este difícil ciclo económico.

Los resultados a alcanzar son:

- 25.000 m2 inguruko lursailak saltzea: 2 milioi euro irabazteko. Hala balegokio, bulegoak ere salduko liriateke, baina, lehentasunezko helburua ez bada ere, enpresen eskaerari erantzungo lekiok.

- Akurako jarduerak badu baldintza bat: E-8 eraikin berria eraiki eta martxan jarriko da (2009. urtearen bukaeran, 2010. urtearen hasieran). Hala eta guztiz ere, lokalen batez besteko okupazio-tasak %90etik gorakoak izatea espero da. Horrela, errentamenduagatik sarrera garbiak milioi bat eurokoak izango dira.

- Teknologi Parkean kokatuta dauden enpresen kopuru osoa 120 izatea, eta enplegu-kopuru orokorra 3.500 lanpostu ingurukoa izatea.

Tradizioz, marketin-lan kementsua egin da Parkean, Parkearen helburuarekin bat etorritik: berrikuntzaren abangoardian jardun behar du Parkeak, teknologia zein ezagutza transferituz, goi-teknologiako enpresak ezartzen eta garatzen erreferente izaten jarrai dezan, enpresen abantaila lehiakorrek areagotzen lagun dezan eta Baltzuari balioa eman diezaión. Ekitaldi honetarako, hortaz, ekintza nagusi hauek egingo dira gutxienez:

- Berariazko merkataritza-jarduerak egitea teknologi parke batean koka daitezkeen eta egun teknologi parke batean ez dauden teknologi enpresentzat, eta zerbitzuak hautazko moduan eskaintzea, eskaintzak xede-enpresa hauentzat zehaztutako premien arabera emanez.

- Egungo eskaintzaren osagarri izango diren zerbitzu berriak sustatu eta garatzea, hala nola, haurtzaindegiko instalazioak, haur eskola, kirol-instalazioak, hotel- eta sukaldaritza-instalazioak, eta enplegatuen garraio-zerbitzuak eta komunikazio orokorreko zerbitzuak hobetzea.

- Parkera inguratzen diren erakundeetako edo enpresetako ordezkariak arduratzea, Euskal Autonomia Erkidegokoez zein kanpokoek; batez ere, atzerriatik datozenez.

- Parkearen irudia eta lortutakoak jakinaraztea, bertoko, estatuko edo atzerriko jardunaldi eta biltzarretan txostenak aurkeztuz.

- Euskotek hiruhilabetekaria eta Parkea hilabetekaria argitaratzen jarraitzea baita web orrialdea, marketin- eta zabalkunde-tresna berria, mantendu eta eguneratzen. Halaber, katalogoak, prentsa-oharrak, iragarkiak eta sustapeneko edozein euskarri egiten jarraituko da.

ARLO TEKNIKOA ETA MANTENTZE-ARLOA

2009. ekitaldian gauzatuko diren inbertsioak, Arabako Teknologi Parkearen hazkunde-egoerak eta handitzeko helburuak bilatzeak baldintzatzen dituzte.

Esandakoarekin bat etorritik, hauek liriateke inbertsio jakinak:

- Venta aproximada de 25.000 m2 de parcelas de terreno, con unos ingresos de 2 millones de Euros. En su caso también se estima que se producirán ventas de oficinas, pero aún no siendo un objetivo prioritario, sí se da respuesta a la demanda de las empresas.

- La actividad de alquiler se ve condicionada por la construcción del nuevo edificio E-8 y su puesta en servicio que se estima para finales del 2009, principios del 2010 pero se pretende alcanzar las tasas de ocupación media de locales en niveles superiores al 90%, lo que permitirá obtener unos ingresos netos por arrendamientos de un millón de euros.

- El número total de Empresas instaladas en el Parque Tecnológico se sitúe en 120, con un volumen global de empleo cercano a los 3.500 puestos de trabajo.

Tradicionalmente se ha venido desarrollando una importante labor de marketing dirigida a atender la misión del Parque, según la cual debe actuar en la vanguardia de la innovación mediante la transferencia de tecnología y conocimiento, para seguir siendo referente obligado en la implantación y el desarrollo de Empresas tecnológicamente avanzadas, contribuir a aumentar las ventajas competitivas de las Empresas y aportar valor a la Sociedad. De igual modo, para el presente ejercicio se han previsto al menos las siguientes acciones:

- Realizar actividades comerciales específicas en relación a las empresas tecnológicas susceptibles de localizarse en un parque tecnológico y que actualmente no se encuentran en el mismo, y ofrecer los servicios de manera selectiva, emitiendo las ofertas en función de las necesidades definidas para estas empresas objetivo.

- Potenciar y facilitar el desarrollo de nuevos servicios que complementen la oferta actual, como instalaciones de guardería, escuela infantil, instalaciones deportivas, instalaciones hoteleras y de restauración y la mejora de los servicios de transporte de empleados y de comunicación en general.

- Atender visitas de delegaciones de Instituciones o empresas de dentro y fuera de la Comunidad Autónoma de Euskadi, especialmente las de carácter internacional.

- Difundir la imagen del Parque y los logros obtenidos, mediante la presentación de ponencias en jornadas y conferencias de ámbito local, estatal e internacional.

- Continuar con la edición de la revista trimestral Euskotek y del boletín bimensual Parkea y con el mantenimiento y actualización de la página web como nuevo instrumento de marketing y difusión. Igualmente, será necesario continuar con los catálogos, notas de prensa o inserciones publicitarias y cuantos otros soportes de tipo promocional se consideren convenientes.

ÁREA TÉCNICA Y MANTENIMIENTO

Las inversiones a materializar en el ejercicio 2009, vienen condicionadas por la situación de crecimiento en la que se encuentra el Parque Tecnológico de Álava y por la búsqueda de los objetivos de ampliación.

En consonancia con lo citado, las inversiones concretas responden a lo siguiente:

- Beste eraikin bat eraikitzea (2007. ekitaldian proiektatua), akurako enpresak kokatzeko, duela gutxi urbanizatutako azken urbanizazio-zona Parkearen azpiegiturez hornitzeko - akurako enpresak kokatzeko gainerako eraikinek duten okupazio-maila handia dela eta.
- Akurako lokal batzuk egokitzen inbertituko da. Zerbitzu gehiago emateak eskatzen du oraingo eraikinetako instalazioak eta zerbitzuak berritzeko inbertitzea.
- Inbertsioak, ureztatzeko sarea optimizatzeko, Parkea handituko den tokietako ureztatze-sistema ona izan dadin.
- Inbertsioak, Arabako Parkearen argiteria publikoko sarea optimizatzeko, energetikoki eraginkorragoa izango den sistema lortzeko eta argindarraren kontsumoan aurrezteko.
- Inbertsioak instalazioetan eta komunikazioetako sistema aurreratuetan, Parkean kokatutako enpresei Teknologi Parkeek bereizgarri duten zera eskaintzeko. Halaber, edukiez eta balio erantsiko zerbitzu berriez hornituko da azpiegitura honen bidez.
- Ohizko inbertsioak eta inbertsio txikiak (altzariak) edota barne-kudeaketa hobetzeko eta sozietatearen eraginkortasuna handitzeko beharrezkoak izango direnak (ekipamendu informatikoak).

Hau da, 2009. ekitaldirako aurretik ikusten diren inbertsioak, 13 milioi euro ingurukoak izango dira orotara.

Kalitatea, eta bertoko azpiegiturak zaintzea bereizgarri dituen ingurune bati dagokionez, mantentze-zeregina izan da iraganean, da gaur egun eta izango da geroan, Parkearen lehenetsutako bat, baita baliabide gehien bereganatzen duen lanetako bat ere. Are gehiago, ordea, etengabe areagotzen zaio exijentzi maila zereginari, hainbat zio direla eta: Parkearen zabalera eta jabetzan eraikitako azalera gero eta handiagoak dira; gero eta bezero gehiago dago, eta bezeroen exijentzi maila -zerbitzuen kalitateari dagokionez- gero eta handiagoa da.

Azken finean, ondoren zerrendatuko diren zerbitzuak eraginkortasunez betetzen jarraitu beharko da: segurtasuna eta jagoletza; lorezaintza; eraikin eta bideen garbiketa eta desinfekzioa; mantentze mekanikoa, elektrikoa eta hidraulikoa; arotzeria; telefonia eta komunikazioen gainerako zerbitzuak; barne-diseinua; kanpoaldeko obra zibilak; igogailuak; alarma-zentralak; beste gremio batzuk; beste konponketa batzuk, eta hornidurak kudeatu eta ordaintzea, besteak beste.

Hori dela eta, adierazi beharra dago, zerbitzuen kostua, zenbaitetan, jarduera-maila handiagoa delako gehitu badaiteke ere, ez da unitateko gehikuntza handirik aurreikusten, hain zuzen ere, Baltzuan inplementatu den kontratazio-sistema eraginkorrari esker.

ADMINISTRAZIO ETA EKONOMIA ZEIN FINANTZA ARLOA

Lehenago azaldutako inbertsio-mailak direla bide, Parque Tecnológico de Álava, Arabako Teknologi Parkea S.A. baltzuko bazkideek finantzaketa egin beharko dute, eta finantzaketa horren osagarri izango da kanpo-finantzaketa, zorpetze-mailak aurreko ekitaldikoak baino handiagoak baitira.

- Construir un nuevo edificio, ya proyectado durante 2007, destinado a empresas en régimen de alquiler, para dotar de infraestructuras del Parque a la última zona urbanizada recientemente urbanizada y condicionado por el alto grado de ocupación alcanzado en el resto de edificios destinados al alquiler.
- Inversiones en adecuación de algunos locales destinados al arrendamiento. La exigencia de prestar más servicios obliga a asumir inversiones en materia de renovación de instalaciones y servicios dentro de los edificios existentes.
- Inversiones en la optimización de la red de riego con el objetivo de garantizar un buen sistema de riego en las zonas de ampliación del Parque.
- Inversiones en la optimización de la red de alumbrado público del Parque de Álava para lograr un sistema energéticamente más eficiente y conseguir un ahorro en el consumo eléctrico.
- Inversiones en instalaciones y sistemas avanzados de comunicaciones, hecho que se enmarca en la necesidad de ofrecer a las Empresas un elemento diferenciador básico y característico de los Parques Tecnológicos. Asimismo, será necesario dotar de contenidos y proveer de nuevos servicios de valor añadido a través de esta infraestructura.
- Inversiones de carácter más rutinario y de escaso volumen (mobiliario) o aquellas que resultan necesarias para lograr mejorar la gestión interna y aumentar la eficiencia de la sociedad (equipos informáticos).

En su conjunto, las inversiones previstas para el ejercicio 2009 ascienden aproximadamente a 13 millones de euros.

La labor de mantenimiento ha sido, es y seguirá siendo una de las prioridades del Parque y uno de los servicios que más recursos corrientes absorbe, como corresponde a un entorno que se distingue por la calidad y el cuidado de sus infraestructuras. Se trata de una tarea cuyo nivel de exigencia crece permanentemente por diversos motivos: la extensión del Parque y la superficie construida en propiedad es cada vez mayor, el número de clientes continúa creciendo y el grado de exigencia de éstos en relación con la calidad de los servicios también.

En definitiva, se deberá seguir cubriendo eficazmente los servicios siguientes: seguridad y vigilancia, jardinería, limpieza y desinfección de edificios y viales, mantenimiento mecánico, eléctrico e hidráulico, carpinterías, telefonía y resto de servicios de telecomunicaciones, interiorismo, obra civil exteriores, ascensores, centrales de alarmas, gremios y reparaciones varias, gestión y pago de suministros, etc..

A este respecto, indicar que si bien el coste de los servicios en algunos casos puede verse incrementado en volumen por el mayor nivel de actividad que se plantea, sin embargo, no se prevén crecimientos significativos en términos unitarios. A ello contribuye el eficaz sistema de contratación implementado en la Sociedad.

ÁREA ADMINISTRATIVA Y ECONÓMICO FINANCIERA

Los niveles de inversión anteriormente descritos obligan a una financiación por parte de los Socios del Parque Tecnológico de Álava, S.A., que se complementará con la financiación externa mediante el incremento de los niveles de endeudamiento respecto a los de ejercicios anteriores.

Finantzaketa Berekia: 2009. ekitaldirako, 9 milioi euroko kapital-gehikuntza aurreikusi da, ondoko koadro honetan adieraziko den bezala banatuko dena:

Financiación Propia: Para el ejercicio 2009 se ha estimado una Ampliación de Capital por parte de los partícipes de la sociedad de 9 millones de euros, distribuidas según el siguiente cuadro:

| PARTAIDETZA PARTICIPACIÓN | EUROTAN EUROS |
|---|------------------|
| IBSB SPRI | 5.766.300 |
| ÁLAVA AGENCIA DE DESARROLLO ARABA GARAPEN AGENTZIA | 3.024.900 |
| GASTEIZKO UDALA AYTO. DE VITORIA-GASTEIZ | 208.800 |
| GUZTIRA TOTAL | 9.000.000 |

2.009. ekitaldirako, hortaz, 375.000 euroko zorpetzea aurreikusi da. Kopuru hau kapital-gehikuntzaren osagarri da, proposatutako inbertsio-aurrekontua lortzearen.

El nuevo Endeudamiento previsto para el ejercicio 2009 se estima en 375.000 Euros, cantidad que complementa la ampliación de capital para la consecución del presupuesto de inversiones propuesto.

Ekonomiaren ikuspegitik, efizientzia ekonomikoa hobetzeko irizpideari esker, hots, diru-sarrerak handiagotuz eta gastuei eutsiz edo gutxiagotuz, geroan kutzako emari positiboak eta jarraituak lortu ahal izango dira.

Desde la óptica económica, el criterio de la mejora de la eficiencia, aumentando los ingresos y conteniendo o minimizando los gastos, permite contemplar, en un horizonte temporal futuro, la generación de flujos de caja positivos y continuos.

2008. urtean errealitatea diren kutzako emari positibo hauek, geror eta handiagoak izango dira datozen urteotan, Teknologi Parkearen enpresa-eredua sendotzeari esker, hasierako inbertsio-prozesuaren ondoren, egiturazko mailak lortu baitira, Bikaintasuneko Enpresa Ardatza ahalbidetzen duten finantza-mailak nahiz maila operatiboak.

Estos Cash Flow positivos que son una realidad en el año 2008, van a ser crecientes en los años sucesivos gracias a la consolidación del modelo empresarial de Parque Tecnológico, tras el proceso de inversión inicial, al haber alcanzado los niveles estructurales, tanto financieros como operativos que permiten el desarrollo del Polo Empresarial de Excelencia.

Giza baliabideei dagokienez, Parkearen lanpostuen zerrenda, gaur egun, 9 langiletakoa da. Adierazgarria eta etengabea da Sozietatearen hazkundea, bai adierazle orokorrei dagokienez (Parkean kokatutako enpresa-kopurua, enplegu erroldatuak, fakturazio globala...), bai merkaturatzeko aukerei dagokienez (Parkearen eraikin eta instalazio fisikoaren gehikuntza, enpresei ematen zaizkien zerbitzuak...).

En lo relativo a los recursos humanos, la plantilla de este Parque se compone en la actualidad de 9 personas. El crecimiento de la Sociedad es significativo y continuo, tanto en lo que se refiere a sus indicadores globales (número de empresas instaladas, empleos censados, facturación global...), como en lo relativo a sus posibilidades de comercialización (incremento de los edificios e instalaciones físicas del Parque, servicios que se prestan a las empresas...).

Langileak kontratatzeke erabili den politika zorrotzak, zereginak eta egitekoak, lehengoak eta oraingoak, langileen artean modu artatsuan banatzea izan du oinarri.

La política estricta mantenida en materia de contratación de personal se ha basado en la distribución de manera responsable de funciones y tareas, antiguas y nuevas, entre los componentes de la plantilla.

Halaber, aipatu beharra dago, Baltzuak ezarritako politikaren arabera, behar-beharrezkoa dela langileak prestatzen eta trebatzen buru-belarri jardutea.

Adicionalmente, es preciso mencionar que la política implantada por la sociedad refuerza la necesidad de realizar importantes y crecientes esfuerzos en materia de formación y capacitación del personal.

5. GASTUEN ETA INBERTSIOEN SAILKAPENA LURRALDEAREN ARABERA

Parque Tecnológico de Álava – Arabako Teknologi Parkea, S.A. baltzuak, Arabako Lurralde Historikoan egiten ditu bere gastu eta inbertsio guztiak, hots, gastuen eta inbertsioen % 100.

5. CLASIFICACIÓN TERRITORIAL DE LOS GASTOS E INVERSIONES

La Sociedad Parque Tecnológico de Álava, S.A. realiza el 100% de los gastos e inversiones en el Territorio Histórico de Álava.

6. 2009. URTEKO AURREKONTUA

6. PRESUPUESTO PARA EL AÑO 2009

6.1. KAPITAL AURREKONTUA

Hauek dira alderdi esanguratsuenak:

- Ibilgetu materialean egindako inbertsioak, txosten honen 4. atalean zehazten denaren arabera.
- Lursailak saldu diren arren, eta amortizazio-funtsera zuzkidurak egin badira ere, Baltzuaeren ibilgetu garbia 2008. ekitaldikoa baino handiagoa da. Horrela gertatzen da, Parkearen hazkunde- eta garapen-fasean aurreikusitako inbertsio handiak direla medio.
- Aurrekontuan sartu diren inbertsio-mailen finantzaketa, 9 milioi euroko kapital-gehikuntzaren bidez egin dena gehienbat.
- Zorpetze gehigarria 375.000 eurokoa izan da, aurrekontuan sartutako inbertsioei ekiteko finantzaketa osatzeko.

6.2 USTIAKETARAKO AURREKONTUA

Hauek dira ustiapeneko kontuaren epigraferik aipagarrienak:

- Ustiapen-sarrerak, lursailak edo bulegoak saltzeagatikoak eta lokalak alokatzeagatikoak, eta berrikuntzako zerbitzuen sarrerak.
- Ustiapen-gastuak, jarduerak gora egin duelako eta jabetzako eraikin-kopuruak gora egin duelako, handitu direnak.
- Ekitaldiko amortizazio-kopuru handia, 1,4 milioi eurokoa.
- Lursailak saltzeagatiko sarreraren ordainetan, badago, gastuen artean besterendutako aktiboen kostua.
- Aurreikusi da barne-kudeaketa hobetzeko prozesuari ekiten jarraitzea: honek informatizazio eta automatizazio-maila handiagoak ekarriko ditu berekin, bai eta antolaketa-lanak ere. Aldi berean, neurri hauek aparteko gastuak (hirugarrenen lanak) ekar ditzakete zenbaitetan, eta "zerbitzu profesionalak" aurrekontu-sailean kontabilitateko isla dutenak.
- Finantza-gastuek handiak izaten jarraitzen dute, ordainketa geroratu zuten lursailak direla bide, merkaturaren interesak sorrarazten dituztelako.
- Finantza-gastuak nabarmen gehitu dira, 2008. ekitaldiko zorpetze-mailak handiak izan direlako.

6.3. LANGILERIA

Hau da Parque Tecnológico de Álava, Arabako Teknologia Parkea S.A. baltzuaeren plantilla 2009ko abenduaren 31n:

6.1. PRESUPUESTO DE CAPITAL

Los aspectos más significativos son:

- Las Inversiones en inmovilizado material, según se detalla en el apartado 4 de esta memoria.
- A pesar de las ventas de terrenos y de las dotaciones al fondo de amortización, el inmovilizado neto de la Sociedad se incrementa respecto al nivel del ejercicio 2008. Esto es así como consecuencia de las inversiones previstas en la fase de crecimiento y desarrollo en las que se encuentra el Parque.
- La financiación de los niveles de inversión presupuestados, que fundamentalmente se realiza a través de la ampliación de capital de 9 millones de euros.
- Endeudamiento adicional cifrado en 375.000 euros, para complementar la financiación necesaria para las inversiones presupuestadas.

6.2 PRESUPUESTO DE EXPLOTACIÓN

Los epígrafes de la cuenta de explotación que requieren alguna mención especial son los siguientes:

- Los ingresos de explotación, que se componen básicamente de los ingresos por venta de parcelas u oficinas, los ingresos por arrendamientos de locales, y los ingresos por servicios de innovación.
- Los gastos de explotación, que fundamentalmente crecen como consecuencia del incremento de la actividad y el incremento del número de edificios en propiedad.
- El fuerte volumen de amortizaciones del ejercicio, alcanzando los 1,4 millones de euros.
- Como contrapartida de los ingresos por venta de parcelas de terreno, figura entre los gastos el coste de los activos enajenados.
- Está previsto continuar con el proceso de mejora de gestión interna, lo que conllevará niveles crecientes de informatización y de automatización y esfuerzos importantes en materia de organización. Paralelamente, en algunos casos, estas medidas pueden conllevar la necesidad de incurrir en gastos de carácter extraordinario (trabajos de terceros), que tienen su reflejo contable en la partida de servicios profesionales.
- Los ingresos financieros se mantienen altos como consecuencia de las ventas de parcelas con pago aplazado que devengan intereses de mercado.
